

JARDUEREN OROITZA- TXOSTENA



2020

AURKIBIDEA

1. LAU HAIZETARA. ATEAK ZABALIK MUSEOA	02
2. IKERLANAK	04
3. ARGITALPENAK	06
4. GRADU ETA GRADU-ONDOKO IKASKETETAKO BEKADUNAK ETA PRAKTIKALDIKO IKASLEAK	07
5. HERMES, PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA	08
6. GOGOETA ETA EZTABAIDA MINTZAGUNEA	10
7. EUSKARA	21
8. GAZTERIA	24
9. ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGI HISTORIKOA	27
10. EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA	32
11. SABINO ARANA SARIEN EKITALDIA	38
12. BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK	42
13. ZABALKUNDEA / KOMUNIKAZIOA / INFORMATIKA	43
14. JARDUEREN ONURADUNAK LORTUTAKO EMAITZEN EBALUAZIOA	44
ERANSKINA: 2020ko JARDUERAK	46

1 LAU HAIZETARA. ATEAK ZABALIK | MUSEOA

Esan barik doa Covid-19ak sorrarazitako krisiak eta, kasu askotan, horren ziozko biztanleriaren konfinamenduak zeharo baldintzatu dutela 2020ko jarduera-programaren garapena.

Ingurumari horretan, azken urteotan erabiltzen ari ginen ereduak berregokitu behar izan ditugu. Hala, Sabino Arana Fundazioak dauzkan lineako baliabideak areagotu eta erabiltzaileen eskura jarri ditugu; urteko azken hilabeteetan antolatutako mintegiak eta hitzaldiak *streaming* bidez eman ditugu (horietako batzuk aurrez aurre ere bai, osasun-agintariek ezarritako araudia zorrotz errespetatuz); eduki digital askotarako sarbidea handitu eta areagotu dugu: artikuluko historikoak, argazkiak, agiritegiko dokumentuak, biografiak, ikus-entzunezkoak eta abar, teknologia berriak baliatuz. Hori guztia egin dugu SAFen webgunearen, sare sozialen, YouTubeko kanalaren eta beste plataforma batzuen bidez. Azken bolada honetan pairatzen ari garen bat-bateko aldaketen gaineko gogoeta ezagutaraziz, partekatuz, aztertuz eta ikusaraziz eta hausnarketa egiteko gogatzuz.

Aurrekoa dela eta, Sabino Arana Fundazioan gordetzen den ondarea zabaltzeko lanean segitzeko, bi atal berri sortu ditugu gure web orrian: LAU HAIZETARA (ATEAK ZABALIK) eta MUSEOA.

Kontua da gure erabiltzaileengana modu birtualean, linean, hurbiltzen jarraitu ahal izatea. Horrek badakar, jakina denez, teknologia berrien erabilera areagotzea eta sustatzea: SAFen webgunea, sare sozialak, YouTubeko kanala eta abar, baita beste plataforma digital batzuk ere, 32 urte hauetan landutako jakintza zabaltzeko eta partekatzeko.

Hala eta guztiz ere, COVID-19aren krisia gainditu ondoren, Sabino Arana Fundazioaren lehentasunetako bat erabiltzaileekin komunikatzeko bide horien aldeko apustua egiten jarraitzea da.

ATEAK ZABALIK

‘Ateak zabalik’ deritzon sailean, Euskal Herriarekin eta bertako pertsona ospetsuekin zerikusia duten gertaera historikoen urteurrenak gogoratu ohi ditugu; agiritegiko dokumentu historikoak, argazkiak eta museoko piezak erakusten ditugu; liburutegiko eta hemerrotekako aleak ikusgai jarri; gaur egungo gizarteari interesatzen zaizkion gaiei buruzko hitzaldiak partekatzen ditugu; ikus-entzunezkoak; modu batera edo bestera Euskadiko historian eragina izan duten gai historiko eta antropologikoei buruzko prentsa-artikuluak eskaintzen ditugu; gure historialariek irratian egindako elkarrizketak...

Sailak hiru atal dauzka:

- Euskal historiak: urteurrenak, biografiak, gertaerak eta pertsonaia historikoak, erreportajeak... Atal hori egunero “elikatzeko” da, astelehenetik larunbatera, eta egun batzuetan bi albiste ere igotzen dira, lotutako argazki (mila inguru) eta Sabino Arana Fundazioak koordinatu edo kudeatu duen gaiari buruzko PDF eta/edo erreportaje-audioekin batera.
- Argazkiak: albumak, agiritegiko dokumentuak, museoko piezak eta beste. 50.000 irudik baino gehiagok osatzen dute argazki-funtsa.

- Bideoak: Euskal gizartea XXI. mendean. Atal honetan, historialariek eta hainbat arlotako adituek (antropologia, kultura, ekonomia, soziologia...) astero-astero ekartzen dizkigute Euskal Herriaren historiako gertakari garrantzitsuen eta protagonisten inguruko testuak. Gure kultura, nortasuna eta iragana eraikitzeko ibilbidea.

Bestalde, Deia egunkariarekin elkarlanean, larunbatero gai jakin baten inguruan idatzitako erreportaje historiko, kultural eta/edo antropologikoa partekatzen dugu irakurleekin, aditu baten eskutik.

MUSEOA

Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoa bakarra da Euskadin, bertan gordetzen diren gai eta bildumak direla eta. XIX. mendetik gaur egunera arteko jatorrizko gaiek osatzen duten museoaren bildumak –etengabe handituz doa, norbanakoek egiten dituzten dohaintza ugariengatik– balio historiko ukaezina dauka eta, kasu askotan, sentimentala ere bai.

- Bildumak: ehun-funtsa, dekorazio-arteak eta arte grafikoak. askotariko piezak daude gordeta, besteak beste, ikurrinak eta banderak, zapiak eta osagarriak, guztiek ere gure memoria historikoaren zati handi bat iraunarazten eta bizirik gordetzen dutenak.
- Argazki-funtsa: ehunka mila irudik eta arte grafikoko euskarrik gure iraganaren inguruko ikus-lekukotasuna erakusten dute eta gertaera historikoak ulertzen laguntzen digute.
- Erakusketak: gure historia eta kultura jorratzen duten aldi baterako ehun erakusketa baino gehiago antolatu ditugu.
- Hitzaldiak, unibertsitateko ikasleentzako lan-orientabideko tailerrak (*Museoko materialen bizitza*) eta beste.
- Euskal Herriaren historia era errazean ezagutu eta bertan sakontzeko tailer didaktikoak.
- Dohaintzak: ikurrinak, zapiak, gauzakiak, piezak...
- Kotsultak.

2 IKERLANAK

2.1 Alberto Onaindiaren gutunak, 1936-1945

Orain dela hamar urte inguru hasi zen garrantzi handiko lana da. Lanaren zeregin behinenak Vatikanoko (Erroma) agiritegietan eta Estatuko beste agiritegi batzuetan gordetako 4.000 bat agiri batu, eurak transkribatu eta horien gaineko oharra egitea da. Lan horren xede nagusia dugu Agirre lehendakariaren laguntzaile Alberto Onaindia abadeak 1936 eta 1945 urteen artean idatzitako gutunak berreskuratzea eta abadeak gerra zibilean zein Bigarren Mundu Gerran egindako kudeaketa-lanen berri eskuratzea.

2.2. “Nor gara gu?” erakusketa erdi-iraunkorra

“Nor gara gu?” izenburuaren ildoan, Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak erakusketa erdi-iraunkorra antolatu du, Euskal Herriaren hainbat alderdi historiko lantzeko asmoz. Euskal Herriaren alderik kulturalena eta nortasuna erakutsi nahi da, gai politikoak bigarren mailan utzita, zeinahi gizarte, politika, kultura eta esparrutako bisitariak atxiki dakizkion.



Ikerketa-lana aipatu erakusketa osatzeko dokumentuak eta erakusgaiak dokumentatzea, aztertzea eta hautatzea izan da. Erakusketaren helburu nagusia dugu Euskadiko historiaren azken mendeko ibilbide erakargarria eskaintzea da, eta Sabino Arana Fundazioan gordetako objektu, argazki, dokumentu, argitalpen eta abarren bidez, gure aurretikoek bizi izan dituzten gertaerak herritarrenganatzea.

2.3 Paperezko disidentzia Ameriketako erbestean. *Euzko Aberri Alkartasunaren* argitalpenak diktadura frankistaren garaian (1957-1967)

1957tik 1967ra bitartean, Ameriketara (Mexikon, Venezuelara eta Argentinara) Francoren diktaduraren ziozko euskal erbesteratuek argitaratu zituzten aldizkako argitalpenei buruzko ikerketa-lana. Erbesteratu horiek gutxiengoan zegoen Euzko Aberri Alkartasuna izeneko antolakundean bildu ziren eta euskal abertzaletasun ofizialaren (EAJ/PNV alderdia eta erbesteko Eusko Jaurkitza) diktadurarekiko erresistentziatik aldendu ziren.

3 ARGITALPENAK

3.1 Artikuluak DEIA egunkariarentzat

Euskal historian eta antropologian oinarriturik, askotariko gaiak jorratzen dituzten artikuluak prestatu ditugu DEIA egunkariarentzat, “Historias vascas” deritzon sailean.

2020ko ekitaldian, ondokoen ekarpena jaso dute Sabino Arana Fundazioak eta Deia egunkariak: ANDER MANTEROLA, ERNESTO GARCÍA FERNÁNDEZ, SONIA HERNANDO, LUIS BILBAO LARRONDO, ARITZ IPIÑA, JOSU CHUECA, JON PENCHE, ADRIÁN ALMEIDA, ANDRES URRUTIA, MIKEL GÓMEZ GASTIASORO, MIREN LLONA, CARLOS IRIARTE, EDUARDO ARAUJO, ANTON ERKOREKA, EDUARDO J. ALONSO OLEA, AITOR MIÑAMBRES, GOTZON LOBERA REVILLA, KOLDO SAN SEBASTIÁN, LEYRE ARRIETA, FRANCK DOLOSOR, IÑAKI BERAZATEGI, ERNESTO GARCÍA FERNÁNDEZ, JABIER ASPURU, OSKAR ÁLVAREZ GILA, PASCAL CHASTÍN, JEAN-CLAUDE LARRONDE, FERNANDO MIKELARENA, ENEKO TUDURI, ALFONSINA LERANOS, MARCELA LUCCI, ERNESTO GARCÍA FERNÁNDEZ, JOSEBA AGIRREAZKUENAGA, BEGOÑA BILBAO BILBAO, KARMELE PÉREZ URRAZA, GURUTZE EZKURDIA ARTEAGA, EDORTA JIMÉNEZ, LUIS DE GUEZALA, JAVIER GONZÁLEZ DE DURANA, IÑAKI GOIOGANA, EDUARDO JAUREGI eta PEDRO LUIS URIARTE.

3.2 Kolaborazioak irratietan

Era berean, kolaborazioak egin ditugu hainbat irratitan, batik bat, Bizkaia Irratian eta, noizean behin, Onda Vascan, historiari eta memoria historikoari lotutako gaien zabalkundea egiteko asmoz, gai horiei buruzko ezagutza gizartean hedatzearen.

Aurtengo abendutik aurrera, hamabost egunean behingo kolaborazioa hitzartu dugu Onda Vasca irratiarekin.

4 GRADU ETA GRADU-ONDOKO IKASKETETAKO BEKADUNAK ETA PRAKTIKALDIKO IKASLEAK

Gizarte-ikuspegiz den bezainbatean, gazteak prestatzeko konpromiso eta erantzukizunetik abiatuta, 2000. urtetik aurrera, Sabino Arana Fundazioak hainbat unibertsitatetako gradu eta gradu-ondoko ikasleen praktikak zuzentzen eta gainbegiratzen ditu, hain zuzen ere, unibertsitate hauetakoak: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragón Unibertsitatea, Madrilgo Karlos III.a Unibertsitatea, Madrilgo CEU San Pablo Unibertsitatea, Europako Ikasketen Proiektua, Conneticut College (USA), Guadalajarako Unibertsitatea (Mexiko), Nazioarteko Bikaintasun Kanpusa, Hezkuntza Esparrutik Lan Arlora Igarotzeko Beken Programa, Novia Salcedo Fundazioa... Praktika horiek agiritegian, museoan edo Fundazioaren Prentsa Bulegoan egiten dira.

Ilido honi dagokionez, esan beharra dago Humanitateen arloko etorkizuneko ia ehun profesionalek (horietako batzuk dagoeneko lan-munduan ari dira) prestakuntza jasotzen jarraitu dutela gure instalazioetan.

2020an, hamazortzi (18) ikaslek eta bekadunek egin dituzte praktikak Sabino Arana Fundazioan.

5 HERMES, PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA

2020ko ekitaldian, *Hermes* aldizkariaren lau zenbaki argitaratu ditugu, hain zuzen ere, 64, 65, 66 eta 67. zenbakiak.

64. zenbakia: Begiradak ETaren amaieraren aurretik eta ondotik



“Begiradak ETaren amaieraren aurretik eta ondotik” izeneburuaren ildoan, Sabino Arana Fundazioak mintegi bat antolatu zuen begirada anitzak, irekiak eta inklusiboak partekatzea, iraganaren memoria kritikoa eraikitzeko eta memoriarekiko bizikidetzan funtsaturiko etorkizunari ekiteko. Euskadiko herri-erakundeetako eta politika-, gizarte, enpresa-, sindikatu-, hezkuntza-arloko ordezkariak eta Elizaren ordezkariak ere parte hartu zuten jardunaldian, ehun batek, gutxi-asko.

Gipuzkoako gobernadore zibila izandako JUAN MARI JAUREGIREN alargunak eta JOSÉ MARÍA PORTELL kazetariarenak, MAIXABEL LASAK eta Carmen TORRESEK, hurrenez hurren, Donostiako gotzain emeritu JUAN MARÍA URIARTEK, Auzitegi Goreneko magistratu ohi JOAQUÍN GIMÉNEZEK eta EDURNE PORTELA kazetariak hainbat alderdi jorratu zituzten gaiaren inguruan, hala nola prozesuan ondo eta txarto egindakoak edo ETaren amaierak euskal gizartean izan zuen eragina eta alderantziz.

IÑIGO URKULLU lehendakariak amaiera eman zion jardunaldiari eta honako txosten hau aurkeztu zuen: “Eusko Jaurlaritzaren esku-hartzearen deskribapena eta balioespena ETaren armagabetzean eta desegitean”.


Sabino Arana Fundazioak argitaratzen duen *Hermes* pentsamendu eta historia aldizkariaren 64. zenbakian jardunaldian izan ziren bost hizlarien gogoetak eta Urkullu lehendakariaren hitzaldia jasotzen dira.

65. zenbakia: Immigrazioa eta euskera

Aldizkariaren 65. zenbakian, Hamabost adituk azertu zuten immigrazioa-euskara bikotea, ondoko galderei erantzuteko helburuz: jakin izan dugu etorkinak euskarara hurbiltzen? Eta, etorkinen ikuspuntutik, zertarako balio die euskarak hona iristean? Aditu guztiek uste dute erronka dela hizkuntza-komunitate indartsu, ireki, koloreanitz eta erakargarria eraikitzea.


Joan den abenduan, Covid-19ak sorrarazitako krisia hasi baino apur bat lehenago, Euskaltzaindiarekin elkarlanean antolatutako mintegi baten emaitza ditugu gogoetok.

Zenbaki honetan, ondokoen ekarpenak jaso ziren: ERRAMUN OSA, Euskaltzaindiaren idazkariordea; LIDE AMILIBIA, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiken sailburuordea; BEATRIZ OTERO, UPV/EHUko irakaslea eta Ikuspegiko ikertzailea; EGUZKI URTEAGA, UPV/EHUko Soziologia saileko irakaslea; HARKAITZ ZUBIRI, UPV/EHUkoa; GORKA MORENO,



UPV/EHUko irakaslea eta Ikuspegiko zuzendaria; BIOTZA PIKO, Gasteizko Berritzegunekoa; FRANCISCO LUNA, Ebaluazioaren Euskal Erakundearen (ISEI-IVEI) zuzendari ohia; JULEN ARANGUREN, Zarauzko Udaleko Immigrazio eta Kulturartekotasun teknikaria; MARIO ZAPATA, soziologoa eta etimologiaz aditua; ALFONSO RÍOS, CCOO Euskadiko euskara arduraduna; PELLO IGEREGI, ELA sindikatukoa; eta AMAIA AURREKOETXEA eta ARANTZA VÁZQUEZ, LAB sindikatukoak.


66. zenbakia: EAJ-PNV alderdiak 125 urte



EAJ-PNV alderdiak antolakunde politiko gisa sortu zeneko 125. urteurrena ospatu du 2020an. Duela 125 urte, Sabino Aranak hazia landatu zuen, eta gaur egun ere fruitu mamitsuak ematen jarraitzen du hazi hark. “Euskadi nazioa da”, aldarrikatu zuen Sabino Aranak. Euskadi nazioa dela aldarrikatzen dugu gaur egun ere euskaldunen gehiengo handi batek. Askotarikoa, anitza eta kohesionatua nahi dugun nazioa; nazio konprometitua, bidezkoa eta solidarioa; nazio garatua, berritzailea eta sortzailea; iparraldera begiratzen duen nazio irekia eta gogo unibertsala duena, ahots propioz izan eta egon nahi dugun Europari begirakoa; nazio askea, bere burua gobernatzen duena eta bakean dagoena. Guztion artean egunez egun eraiki dugun eta eraikitzen jarraituko dugun nazioa. Horrelakoa da XXI. mendeko nazioa; horrelakoa da nahi dugun Euskadi.

Hermesen 66. zenbakia monografikoa da eta, zenbaki horretan, ANDONI ORTUZAR EAJren EBBko buruaren hasierako agurraren ondoren, azken 125 urteotan egindako bidea eta aurrean ditugun erronkak aztertzen dira, hiru atal edo kapitulutan aztertu ere: XXI. mendeko euskaldunak; Euskadi 2045. Gure lehiakortasunari eusteko eta hobetzeko gakoak, gizarte-ongizatea eta gizarte-kohesioa bermatzeko Euskadiren etorkizunean.

67. zenbakia: Memoria eta Euskal Literatura



Euskal literatura eta memoria, nortasun propioa eta kolektiboa eraikitzeko tresna.

Euskal kulturaren eta literaturaren arloko adituek euskal literaturak gure memoria historikoa nola islatu duen aztertu dute ale honetan. Izan ere, literatura, askotan, iragana islatzen duten errealitateen zatien bidez egiten da, historia ez den beste ñabardura batzuekin, inoiz bakarra ez den historia batekin. Horrela, Literaturaren bidez HISTORIAK (letra larritz) nekez islatzen dituen errealitateak ezagut ditzakegu.

Zenbaki honetan, ondokoen kolaborazioak jaso dira: PATXI ZUBIZARRETA, MARI JOSE OLAZIREGI, AINGERU EPALTZA, ANA URKIZA, ENRIQUE BARÓN, JOSÉ FÉLIX MERLADET, eta IÑAKI GOIOGANA. KIKE SANTAREN kazetariak elkarriketa egin dio DOLORES REDONDO idazleari; argazkiak TXETXU BERRUEZORENak dira eta MARÍA ALTUNAK egin du arte-kolaborazioa.

6 GOGOETA ETA EZTABAIDA MINTZAGUNEA

Mintegiak

6.1 Eraldaketa politiko eta sozialak Europan eta Latinoamerikan

“XII. Bilboko Elkarrizketak: Europa eta Latinoamerika” mintegiaren baitan, *Mobilizazioak eta matxinadak krisi politiko eta sozialen aro globalean* izeneko izenburuaren ildotik, Txile, Mexiko eta Europako Parlamentuko ordezkari politikoek, katedradunek eta beste erakunde-ordezkari batzuek, urtarrilaren 31n, Europan nahiz Latinoamerikan gertatzen ari diren eta gure gizarteak gero eta gehiago kezkatzen dituzten aldaketa politiko eta sozial azkar-azkar aztertu zituzten.



Europako Demokraten Institutuak (IED) eta Sabino Arana Fundazioak elkarlanean antolaturiko mintegi horretan, besteak beste, ondokoek parte hartu zuten: FUAD CHAIN, Txileko Alderdi Demokrata Kristauaren (PDC) presidentea; GABRIEL ASCENCIO, diputatua, Txileko Diputatuen Ganberako presidente ohi eta enbaxadore ohi; MARIANA GÓMEZ DEL CAMPO, PAN-Mexikoko senatari eta Amerikako Antolakunde Kristauaren (ODCA) presidenteordea; ANDER GURRUTXAGA, UPV/EHUko Soziologiako katedraduna; GUILLERMO HERRERA, CARMEN FREIREn Kabineteko burua eta PDC alderdiaren gaikako mahaien arduraduna; JAVIER LÓPEZ, Europako Parlamentuko kidea eta Europa-Latinoamerikako Asanblada parlamentarioaren presidentekidea; MIKEL BURZAKO, Europako Demokraten Institutuaren administratzaile nagusia; eta CARMEN BEATRIZ FERNÁNDEZ, aholkularia eta Nafarroako Unibertsitateko irakaslea. Europako Parlamentuko kide IZASKUN BILBAOK gidatu zuen jardunaldia eta ondoko eztabaida-saioa moderatu.

Mintegiaren amaieran, CARMEN BEATRIZ FERNÁNDEZek zenbait ohar egin zituen ondorio gisa. Nafarroako Unibertsitateko irakaslearen arabera, eguna “oso bizigarria izan zen, baikorren eta ezkorren arteko borroka garbian, baina adostasuna egon zen demokraziaren krisiari amaiera emango dioten irtenbideak politikatik atera behar direla” esaterakoan.

Mintegiko adituek politika “berrikustera” gonbidatu gintuzten, eta argi geratu zen “pertsona politikaren epizentroa dela eta demokrazia berritu egin behar dela ikuspegi hori gauzatu ahal izateko”. Halaber, “muturrek gune politikoari ez sakatzeko” aldarria egin zuten, “polarizazioa bizitzen ari garen garai hauetako osagai bereizgarria baita”.



Ekitaldi hori azkena izan zen JUAN M^a ATUTXAK Sabino Arana Fundazioaren lehendakari gisa jarduten zueneko. Jardunaldiaren hasiera-ekitaldian, Atutxak azken urteotan egin diren hamabi edizioak balioetsi zituen; bestalde, adierazi zuen “mundua errotik aldatu dela” hamabi urte hauetan eta “eredurik gabe” geratzen ari garela: “eredurik gabe politikan, ekonomian eta bizitzaren esparru ugarian. Eta horrek guztiak umezurtz, ziurtasunik gabe, lparra galduta sentiarazten gaitu, oihanaren legearen eta indartsuenaren boterearen menpe. Munduan hedatu diren mobilizazio eta matxinadetako batzuk egoera horren isla dira”.



“Arrazoiaren alde matxinatu gaitezen, mundu zuzenago, gizatiarrago eta iraunkorragoaren kausak beti merezi izango baitu”, azpimarratu zuen.

Fundazioaren lehendakari moduan egindako azken agerraldi publikoa izan zenez, Atutxak eskerrak eman nahi izan zizkien “Fundazioaren jardura eta mintegietan parte hartu duten milaka pertsona guztiei”. Era berean, poztu egin zen bere azken hitzak “gogoeta mintzagune

honetan izan direlako, beronen printzipioak, baita nireak ere, elkarriketa, giza eskubideak, bakea eta bizikidetza izan direlako beti”.

Amaitzeko, esan zuen “ohore handia eta pribilegioa dela nork bere herriaren zerbitzuko jardutea eta Euskadiren zerbitzuan aritzea delako norberak, apaltasun osoz, izan dezakeen ametsik handiena”.

Atutxaz gain, hasiera-ekitaldian ANDONI ORTUZAR EAJ-PNV alderdiaren EBBko burua eta PDE-EDPko presidenteordea, eta FRANCESCO RUTELLI IEDEko presidentea izan ziren –azken horren hitzaldi grabatua ikusi zuten bertaratutakoek, mintegian bertan ezin izan zelako egon.

6.2 “Gerraren hondakinetatik Europaren etorkizunera. Schuman adierazpenaren 70. urteurrenean”

“Gerraren hondakinetatik Europaren etorkizunera. Schuman adierazpenaren 70. urteurrenean” izenburuaren ildoan, Europar Batasuneko Zuzenbideko adituek eztabaidatu dute gaur EBk datozen urteetako erronkei aurre egiteko berrikusi eta aldatu beharko dituen alderdiei buruz.

PDE-EDPrekin elkarlanean antolatu zela, ANDONI ORTUZAR PDE-EDPko presidenteorde eta EAJ-PNV alderdiaren EBBko buruaren eta MIREIA ZARATE Sabino Arana Fundazioaren presidentearen hitzaldiek hasiera eman zioten mintegiari. Horietan, Europaren etorkizunari buruzko Biltzarren garrantzia eta balioa azpimarratu zuten agintariek, “EB eraldatzeko eta gure garaiko erronkei erantzuteko aukera paregabea” baitugu.



ENRIQUE BARÓN Europako Parlamentuko presidente ohi eta Europazale eta Federalisten Batasuneko (UEF-Espainia) presidentek airreneko hitzaldia eskaini zuen, eta bertan Europaren sorrera eta eraikuntza oinarri duten balioen indarraldia azpimarratu zuen. ISTVÁN SERTO-RADICS, PDE-EDPko idazkariorde nagusia, bat etorri zen Baronekin, bideoz grabaturiko esku-hartze baten bidez.

Era berean, GUY VERHOFSTADTEK, Belgikako lehen ministro ohi eta ALDEko buru ohiak eta LAURENCE FARRENG andreak, Europako Parlamentuko kideak PDE-EDPren ordezkaritzan, bideo bidez esku hartu zuten.

Verhofstadek deitoratu egin zuen Europar

Batasunaren erantzunik eza hainbat gai garrantzitsuren aurrean, hala nola COVID-19aren krisia, migrazio-gertakariak eta gerra zein gatazketan esku hartzeko gaitasunik eza. Bestetik, LAURENCE FARRENG andreak, bera kide den RENEW talde politikoak Europaren etorkizunari



buruzko Konferentzian parte hartzeko engaiamendua azpimarratu du, bi gai bereziki azpimarratuz: hezkuntza eta kultura.

Gainerako hitzaldietan, ondokoek parte hartu zuten: PATXI ALDECOA, Unibertsitate Konplutentseko Nazioarteko Harremanetako katedradun eta Europako Mugimenduaren Kontseilu Federaleko presidentea; BEATRIZ PÉREZ DE LAS HERAS, Deustuko Unibertsitateko Europar Batasuneko Zuzenbideko katedraduna; MARIOLA URREA, Errioxako Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakasle titularra; Euskadiko UEFko presidentea, JOSÉ FÉLIX MERLADET; Europako Parlamentuko kide eta EEPko zuzendaritza-batzordeko kidea, IZASKUN BILBAO; eta IGOR FILIBI, Eurobasqueko presidenteorde eta EHUKo Nazioarteko Harremanetako irakaslea.

6.3 Euskal Abesbatzen Mugimendua: memoria eta erronkak

Bilbao 700 Fundazioak eta Sabino Arana Fundazioak euskal kulturaren memoriaren arloan urtero-urtero antolatzen dituzten jardunaldien esparruan, abesbatzen mugimendua aztertu da oraingoan; “inolako zalantzarik gabe, mugarri loriatsuz betetako historia duen adierazpen artistikoa da koralena, eta haren alderdi on guztiak hartu behar ditugu horren etorkizun distiratsua sortzeko aurrerantzean” adierazi zuen Mireia Zarate Sabino Arana Fundazioaren presidentek jardunaldiaren hasiera-ekitaldian.



«Euskal Abesbatzen Mugimendua: memoria eta erronkak» izenburuaren ildoan, Bilboko Koral Elkartearen kudeatzaile IÑIGO ALBERDIK gidatutako mintegi horretan, ondokoek parte hartu zuten hizlari gisa: PELLO LEIÑENA, ERESBIL, Musikaren Euskal Artxiboa erakundearen zuzendaria; ANA BERRIZBEITIA, UPV-EHUKo Abesbatzaren presidentea; VALENTÍN ATXOTEGI, Leioako Musika Eskolako zuzendari ohia; eta DAVID AZURZA, musikagilea eta Euskal Herriko Abesbatzen Konfederazioaren koordinatzailea. Era berean, euskal abesbatzen mugimenduko eta kulturaren esparruko hogeita hamar bat ordezkari ere parte hartu dute ekitaldian.



PELLO LEIÑENA Eresbileko zuzendariak bere hitzaldian azaldu zuenez, euskal abesbatzen esparruan, federazioaren jardura erregimen frankistaren ostean normalizatu zen. “1979an, Bizkaiko Koralek Federazioak aurkeztutako lehen estatutuen ondotik, beste lurralde batzuetako erakundeak normalizatzeko jarduerak etorri ziren”, gogorarazi zuen Leñenak. Lehenago, 1969. urtean, Abesbatzen lehen lehiaketa egin zen Tolosan,

Kataluniako Federazioa eta *A Coeur Joie* elkarteak eredutzat hartuta. Ekimen hura euskal abesbatzen federazio garapenaren oinarriak finkatzeko topagunea izan zen.

Leñenak beste mugarri batzuk ere azpimarratu ditu, hala nola Euskal Herriko Federazioa eratzeke Batzarra (1983ko urtarrilaren 15a), “inflexio-puntua izan baitzen hainbat jardura

garatzeko, hala nola abesbatzen zuzendaritza-ikastaroak, abesbatzen topaldiak, *Kantuz* aldizkariaren argitalpena eta gure konpositoreek abesbatzen lan berrien argitalpena.

Beste alde batetik, DAVID AZURZA Euskal Herriko Abesbatzen Konfederazioaren koordinatzaileak azaldu zuenez, abesbatzen mundua egungo gizarte-, kultura- eta egitura-aldaketetara egokitzen ari da. “Paradigmaren aldaketa handia dago gaur egun abesbatzen jardunbidean, helburuetan eta ikuspegian, eta molde berriak ia-ia ez dauka zerikusirik XIX. eta XX. mendeetako abesbatzen izaerarekin eta lan egiteko moduarekin”, azpimarratu zuen.

ANA BERRIZBEITIA EHUKo abesbatzaren presidente eta Elizbarrutiko Teologia Institutuko irakasleak “hondoratuko ez bagara, indarrak batu behar ditugula” azpimarratu zuen.

Azkenik, VALENTÍN ATXOTEGI Leioako Musika Eskolako zuzendari ohi eta Leioako Kantika Korラルaren kudeatzaileak Leioako abesbatzaren egungo proiektua eta etorkizuneko aukerak aztertu zituen.

6.4 Garapenerako lankidetza eta COVID-19

Herri erakundeetako, osasun-arloko, unibertsitateko, gizarte zibileko antolakundeetako eta abarretako arduradunak elkartu ziren irailaren 11n Sabino Arana Fundazioan, COVID-19aren pandemiaren garapenari lotutako helburu eta tokiko nahiz munduko politiketan sorrarazten ari den eragina aztertzeke eta eztabaidatzeko.

“Egungo pandemiaren erronka erabat lotzen zaie, halabeharrez, denon elkarlanari eta jardunbide egoki zehatzei osasun-arloan. Halakoak behar bezala aztertu eta ebaluatuz gero, lagundu baitiezagukete koronabirusaren krisiari aurre egiteko garapen estrategia batzuk diseinatzeko” adituek esan zuten.



“Garapenerako lankidetza eta COVID-19” izenburuaren ildotik, herri-erakundeetako eta osasun- arloko ordezkariak ideiak eta planak aurkeztu zituzten, koronabirusaren krisiaren aurrean, garapen-estrategia batzuk diseinatzeko laguntzeko asmoz.

Mintegiaren hasiera-ekitaldian, GOTZONE SAGARDUI Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuak azpimarratu zuen harro egoteko modukoa dela behartsuenen osasunarekin konprometituta dauden pertsonak izatea gurean, nahiz eta behartsuak Euskaditik milaka kilometrotara egon. “Osakidetzak lortu duen arrakasta eta ospea, hein handi batean, erakundea osatzen duten gizon-emakumeen gizatasunaren eta lan-kalitatearen ondorio dira”, adierazi zuen.

Beste alde batetik, “elkartasuna” eta “konpromisoa” kontzeptuak azpimarratu zituen. Perura joan zen profesionalen taldeak erakutsi dituen balioak dira. Sargardui sailburuak balio, elkartasun eta konpromiso horiek baliatuz jokatzeko deia egin zion euskal gizarteari, COVIDari aurre egin diezaiozun: “gure banakako portaeren mendekoa izango da pertsona askoren osasuna eta, batzuetan, bizitza bera”, nabarmendu zuen.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiken sailburu BEATRIZ ARTOLAZABAL andreak, bideoz grabatutako hitzaldi batez, konpromisoa hartu zuen “gure herrialdeko GKEek osatzen duten elkarte-sare aberatsaren proiektuak eta programak” sustatzen jarraitzeko bera buru duen sailetik, bai eta “garapenerako lankidetzaren eredu propioa, elkarlanean eta aliantzen eraikuntzan oinarrituta” garatzen jarraitzeko ere.

Era berean, “lankidetzaren politiketan eragile berriak txertatzearen” alde egin zuen. Bestetik, Eusko Jaurlaritzaren (Osasun Saila eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiken Saila), Mugarik gabeko Medikuen eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren arteko aliantza azpimarratu zuen, “aurkitzeko eta indartzeko ibilbide berria irekitzen digulako”.

Aurreneko hitzaldian, GONZALO FANJUL jaunak, ISGlobal Politika Analisiaren ataleko zuzendariak azpimarratu zuenez, koronabirusaren krisiak herrialde aberatsak eta pobreak lerrokatu ditu pandemiaren aurkako borroka eta ekonomien babesa aintzat hartzen dituen agenda baten inguruan. Hala ere, Fanjulen ustez, “erantzuteko gaitasun desorekatuak ondorio

ikaragarriak izan eta izango ditu ehunka milioi pertsonaren osasunean, ongizatean eta segurtasunean, baita nazioarteko komunitateak horiei babesa emateko duen gaitasunean ere”.

“Pandemiak erakutsi digu behartsuenak galtzen uztea moralik gabekoa bezain zentzugabea izango litzatekeela; aitzitik, garapen estrategietan luzaroan espero diren aldaketak egiteko aukera eman digu”, adierazi zuen. Ildo horretan, horietako batzuk aipatu zituen, hala nola “txertoari lotutako osasun globalaren gobernantza berria, edo osasun globalak hartu duen garrantzia estatuen segurtasunaren alderdi erabakigarri gisa”.

Amaitzeko, lankidetzaren deszentralizatua deiturikoak ingurumari honetan izan behar duen funtsezko eginkizuna azpimarratu zuen,



“bereziki euskal lankidetzak, berezko gaitasunak eta balio erantsia dituela eta”.

Azkenik, DAVID NOGUERAK, Mugarik gabeko Medikuen elkarteko presidenteak, ISMAEL DíEZ DEL VAL Basurtuko ospitaleko zirujauak eta «Euskadiko ordezkariak medikoak Perun izan duen esperientzia, COVID-19aren larrialdiari erantzuteko» euskal misioaren koordinatzaileak, eta CRISTINA CALVO andreak, Basurtuko ospitaleko ebakuntza-gelako erizain eta aipaturiko proiektuan parte hartu duenak, azaldu zuten Eusko Jaurlaritzak eta Mugarik gabeko Medikuek elkarrekin batera gauzaturiko esperientzia aitzindari hori zertan datzan.

LEIZURI ARRIZABALAGA legebiltzarkideak aurkeztu eta moderatu du jardunaldia.

Hitzaldiak

6.5 “Álava sarea. Genero-istorio baten paradigma”

“Álava sarea. Genero-istorio baten paradigma” izenburuaren ildotik, Josu Chueca Historiako doktore eta EHUKo Historia Garaikideko irakasle ohiak hitzaldia eman zuen urriaren 15ean. Hitzaldi horretan, oro har, loturik ez doazen hiru kontzeptu jorratu zituen: generoa, historia eta memoria.



Chuecak Eusko Jaurlaritzak 1937an sortutako informazio- eta espioitza-sarea edo Álava sarea deiturikoaren nondik norakoak azaldu zituen, sare horretako osagai nagusiak lau emakume izan zirela gogoratuta: BITTORI ETXEBERRIA, DELIA LAUROBA, TERE VERDES eta ITZIAR MUJICA. “Generoa”, batetik, Álava sareko ekintzaile nagusi eta funtsezkoak emakumeak izan zirelako. “Historia” bestetik, Chueca doktorearen kontakizuna iragan historikoarekin guztiz bat datorrelako. Eta “memoria”, azkenik,

aipaturiko emakumeen eta sareko gainerako kideek egindako lana egungo belaunaldiko kideek eta etorkizuneko belaunaldietakoek aldarrikatu behar dutelako elkartasunaren erakusgarri eta zapalkuntzaren aurkako borrokaren eredu gisa.

6.6 “Torture 26” film laburraren aurkezpena, LORENT SALEH ekintzaile venezuelarraren eskutik

COVID-19ak eragindako izurritearen hedapena gerarazteko helburuz, Eusko Jaurlaritzak hartutako beren-beregiko prebentzio-neurriak direla eta, urriaren 27an aurreikusita zegoen LORENT SALEH giza eskubideen aldeko ekintzailearen “Torture 26” film laburraren aurkezpena egun lehenago atzeratu behar izan zen, osasun-baldintzek berme guztiekin egin ahal izan arte.

6.7 Tailerrak: “Museoko materialen bizitza”

Laneratzeko bidean hainbat espezializazio-esparru ezagut ditzaten, Humanitateetako ikasleentzako beharrezko tresnak eskaintzeko jardueren esparruan, Sabino Arana

Fundazioak Museoko materialen prebentziozko kontserbazioari buruzko bi tailer antolatu zituen urtearen azken hiruhilekoan UPV/EHUko Arte Ederretako Fakultateko ikasleentzat.

Tailer horietan, hainbat jakintza-arlotako adituen ezagutza eta Fundazioan praktikak egin dituzten ikasleen bizipenak lotu nahi dira.

Urriaren 30eko jardunaldian, museoetako prebentziozko kontserbazioari eskainitakoan, BEGOÑA ARISTEGIK, Arte Ederretako lizentziadun eta prebentziozko kontserbazioan adituak, eta LUISA OLIVARESEK, Arte Ederretako lizentziadunak, jardun zuten. Azkenak, graduako praktiketako ikasle izan zela, Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoan izandako esperientzia azaldu zien tailerreko parte-hartzaileei.



Azaroaren 13an, SOLEDAD SANTISTEBANEK, Geografia eta Historiako lizentziadun, prebentziozko kontserbazioan aditu eta ehungintzan espezializatuak, Museoko ehunezko materialak kontserbatzeko eta zaharberritzeko teknikak eta praktikak azaldu zituen. Santistebanek bere esperientzian eta Sabino Arana Fundazioaren Abertzaletasunaren Museoaren ehun-funtsarekin –tipologia askotako mila ale baino gehiago gordetzen dituen funtsa–urteetan zehar egindako lanean oinarritu zuen bere

mintzaldia.

Amaitzeko, prebentziozko kontserbazioaren arloko adituak ehunekin egindako lanketaren adibide praktiko batzuk erakutsi zituen.

6.8 Bideo bidezko hitzaldia XABIER IRUJOREKIN. “Trump vs. Biden. Hauteskundeak pandemia garaian”.

Historiako doktore eta Nevadako (Reno) Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroko zuzendari Xabier Irujok bideohitzaldia eskainiko zuen azaroaren 12an, Estatu Batuetan egindako hauteskundearen emaitzei eta horien eraginari buruz hitz egiteko.

Irujok Trumpen presidentetzaz, hauteskunde-kanpainaz eta emaitzez, Trumpen herentziaz, JOE BIDEN hautatu berriaren erronkez eta abarrez hitz egin zigun, guztiz zatituta dagoen herrialde estatubatuarrean eta COVID-19ak eragindako ehun ekonomiko eta sozialaren suntsipenaren ingurumarian.

XABIER IRUJOK, Caracasen (Venezuela) jaiotako diasporako euskaldunak, 20 urte inguru daramatza AEBetan eta, hortaz, behatzaile pribilegiatu baten ikuspuntutik egin zuen azterketa, Estatu Batuetako gizarteak bizi dituen aldaketei adi dagoen irakaslea delako.



6.9 “Zahartze aktiboa” hitzaldien zikloa, Helduak elkartarekin elkarlanean

Sabino Arana Fundazioak Helduak elkartarekin elkarlanean antolatu zuen hitzaldi-ziklo hori, eta iaz bi erakundeen artean antolatutakoaren jarraipen gisa har dezakegu.

Hala, gaur egun nagusiak gehien kezkatzen dituen gaietako bat jorratu genuen: segurtasuna (lapurretak, iruzurrak, maulak). Ertzaintzaren bi ordezkari adineko pertsonen aurkako delituri ohikoenak egin ohi diren egoeretako batzuk azaldu zituzten, eta horrelako delitu baten biktima izatea saihesteko prebentzio-neurriak hartzen irakatsi ziguten. Bi aste geroago, TOTI MARTINEZ DE LEZEAK euskal matriarkatuaz hitz egin zigun eta, azkenik, OSKAR BENEGASEK kondairetako pertsonaiak, heroiak, nola sortzen diren erakutsi zigun.

Aurtengo hitzaldi-zikloaren helburua adinekoek gizartean duten garrantzi handia aztertzea eta egiten duten ekarpena aitortzea izan da.

Zehatzago esanda, adineko pertsonen bizitza osoa eta aktiboa ematea sustatzen duten praktika berriak garatzeko atea ireki nahi zen. Izan ere, jakin behar dugu zahartze-prozesua zenbat eta aktiboagoa izan, adinekoek beren gaitasunak besteen eskura jartzen jarraitu ahal izango dutela, orduan eta ekarpen handiagoa egingo diotela gizarteari, eta hirugarren pertsonetik zein erakundeetik gero eta mendekotasun txikiagoa izango dutela.

Hitzaldi-ziklo honetan, helduarora hurbilduko gara ikuspegi horrekin, adinekoen aniztasunaz jabetuta, eta hiru saiotan adina hobeto eta osoago garatzeko beste hainbeste estrategia biltzen saiatuko gara.

Hitzaldi-ziklo horretan, helduarora hurbildu ginen ikuspegi horrekin, adinekoen aniztasunaz jabetuta, eta hiru saiotan adin aurreratu eta osoago garatzeko beste hainbeste estrategia biltzen saiatu ginen.



Horretarako, hitzaldi horietako lehenengoan, azaroaren 19an, JAVIER YANGUAS Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Psikologia Biologiko eta Osasuneko doktoreak eta Salamancako Unibertsitate Pontifikaleko Helduen Hezkuntzako unibertsitate-adituak parte hartu zuen. Bere ibilbide profesionala adinekoen eta psikologiaren esparruan datza, nazioarteko aditu bilakatu dela. Irakaslea da estatuko eta atzerriko hainbat unibertsitatetan, eta zientzia arloko hainbat artikuluren egile eta egilekide ere bada. Yanguas doktoreak “zahartzaroaren eredu berriak” Zahartze aktiboaren paradigmatic haratago” izenburuko hitzaldia eskaini zigun.



Abenduaren 2an, IÑAKI ARTAZA mediku geriatra eta IMQ-IGURCOKO asistentzia-zuzendariak “Mendekotasunari aurrea hartzea: gure bizimoduak garrantzi handiagoa dauka gure zahartzean genetika baino” hitzaldia eman zuen. Artaza doktoreak zahartzea eta haren garapen arrunta baldintzatu dezaketen faktoreei ekin zien mintzaldian: gaixotasuna, muskulu-masaren galera eta abar. Sarkopenia (muskulu-masaren eta muskulu-indar eskeletikoaren galera mailakatu eta orokorra)

hauskortasunaren substratu nagusia dela azaldu zuen eta gaurko medikuntzak horixe lantzea duela helburu gure adinekoen desgaitasuna eta mendekotasuna murriz daitezen lortzeko. Azkenik, sarkopenia prebenitzeko gako batzuk eskaini zituen, ariketa fisikoaren eta nutrizioaren bidez .

Abenduaren 17an, LOURDES ZURBANOBEASKOETXEA medikuak eta Bizkaiko Foru Aldundiko funtzionarioak beste hitzaldi bat eskaini zuen: “Mendekotasuna izateak ez du gure bizitza gobernatzea eragozten. Gure zainketak prestatzen”.



6.10 Burgosko epaiketaren 50. urteurrena. “Burgosko epaiketa, Erregimenaren «barne etsaia» delakoaren aldetaren faktorea”, FRANCISCO LETAMENDIAREN eskutik.

FRANCISCO LETAMENDIAK, EHUko Politika eta Administrazio Zientzien Saileko irakasle emerituak eta 1970ean Burgosko epaiketan parte hartu zuten abokatueto gazteenak hitzaldia eman zuen Sabino Arana Fundazioan, abenduaren 10ean, honako izenburu honen ildoan: “Burgosko epaiketa, Erregimenaren «barne etsaia» delakoaren aldetaren faktorea”.

Burgosko epaiketa 1970eko abenduan egin zen, ETAko 14 kideren eta bi apaizen aurka. Epaiketa horren helburu nagusia zen azken 6 urteetan sortutako abertzaletasun berriaren aurkako gaztigua izatea –hortaz, 6 heriotza-zigor eskatu ziren akusatuentzat–. Epaiketa, baina, frankismoaren aurkako aldarri zabal bilakatu zen.

6.11 Ekonomia ituna: Euskal Autonomia Erkidegoaren eta estatuaren arteko hitzarmenaren 40. urteurrena

1878an jaio zenetik, Ekonomia Itunaren bilakaera gorabeheratsuaren ostean, 1980an, PEDRO LUIS URIARTEK, garai hartan Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun sailburu zenak, Euskal Negoziazio Batzordearen burua izateko ohorea izan zuen, Gernikako Estatutuak jasotzen duen definizioan oinarritutako metodologia berritzaile batez baliatuz. Negoziazio luzea, gogorra eta konplexua izan zen, eta hamaika oztopo zail gainditu behar izan ziren. Nolanahi ere, oztopo guztiak gainditu eta gero, Ekonomia Ituna argitaratu zen 1981ean, eta akordio erabakigarria lortu zen Euskadiren eta estatuaren artean.

Euskal ordezkarien artean, besteak beste, PEDRO LUIS URIARTEZ gain, JOSU ELORRIAGA, Kongresuko diputatua EAJ-PNV alderdiaren izenean, JUAN M^a OLLORA senataria izan ziren.

Bideoa gertatu genuen negoziazio horren lekuko izan ziren hiru protagonista horiekin, negoziazioaren abiapuntuko baldintzak, egoera soziopolitikoa eta azken 40 urteotan Euskadiko bizitza politikoan eta ekonomikoan izan duen eragin onuragarria aztertzeko.

6.12 Agirre lehendakariaren heriotzaren 60. urteurrena

1960ko martxoaren 22an, JOSE ANTONIO AGIRRE lehendakaria hil zen bat-batean Parisen, 56 urte zituela 2020an, beraz, 60 urte bete dira zendu zenetik. Eta Agirre lehendakaria ohoratzeko, martxoan hitzaldi bat antolatzeko asmoa genuen, baina ezin izan genuen egin COVID-19aren zioz. Hitzaldiaren ordeztu, lau bideo egin ditugu, gure webgunearen eta sare sozialen bidez zabaltzeko.

Lehen bideoan, ALBERTO IRIGOYEN historialariak Uruguako herriak Agirre lehendakariarekin izan zuen harreman estua gogorarazi digu; lehendakariak askotan eskertu zien uruguaitarrei erbestera egindako ihesaldian egindako harrera beroa.

Bigarren bideoan, IÑAKI GOIOGANA historialariak, “Gernikatik New York-era, Berlindik igarota” liburuaren bidez, JOSE ANTONIO AGIRRE lehendakariak Europa okupatuan zehar egindako bidaia epikoa kontatu du, 1937an, erbestera abiatu ondoren.

Hirugarrena “Pro libertate Patria... José Antonio Agirre” erakusketatik barrena egindako ibilbidea da, Agirre lehendakariaren irudia ezagutzeko aukera eman bai, baina, batez ere, haren ideietan sakontzeko aukera ematen diguna.

Eta laugarrenean, JEAN-CLAUDE LARRONDE historialari eta ikertzaile lapurtarrak Agirre lehendakariaren gobernuak faxismoari aurre egiteko erbestean bultzatu zuen politikaz besteko ekimenei erreparatu die, besteak beste, Eresoinka folklore eta dantza taldeari.

6.13 Hitzaldia: “Indarkeria matxista COVID-19aren garaian”

Abenduaren 9an, Sabino Arana Fundazioan, Norma Vázquez psikologo feministak COVID-19ak eragindako etxealdian indarkeria matxista pairatu duten emakumeen esperientziak azaldu zizkigun.

Norma Vázquez Mexikokoa da jatorriz, baina Bilbon bizi da orain dela 22 urte. Duela 40 urte lotu zitzaion feminismoari eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra borrokatzeari. Hainbat taldetan aritu da: CIDHAL (Latinoamerikako lehen zentro feminista), Mujeres en Acción Sindical eta Mexikoko Barruti Federaleko Koordinadora Feministan.

1992 eta 1998 urteen artean, Las Dignas elkarte feministako kide izan zen El Salvadorren. Bilbon, aldiz, Sortzen aholku-etxea sortu zuen, indarkeria matxistaren aurkako ikerketetan eta jardueran eta emakumeen ahalduntzea bultzatzen espezializatutakoa.

Vázquezen ikergai nagusia emakumeen aurkako indarkeria dugu, eta horren inguruan zabal ikertu eta hainbat erakundetan prestakuntza eman eta aholkularitza eskaini die.

Hitzaldian, Norma Vázquezek COVID-19ak sorrarazitako pandemiaren barruan, Zehazki, etxealdian, indarkeria-mota desberdinak pairatu dituzten emakumeen kasu zehatzak azaldu zizkigun. Era berean, arazo horri erantzuteko martxan jartzen ari diren politika publikoei buruz eta oraindik eginkizun dagoen bideari buruz hitz egin zigun.



7 EUSKERA

7.1 Etorkizuneko euskal gizartea: euskara erabiltzeko eremu berriak

Euskaltzaindiak eta Sabino Arana Fundazioak gogoeta jardunaldia egin zuten joan den uztailaren 21ean Bilbon, etorkizuneko euskal gizartean euskararen erabilera-esparru berriak identifikatzeko helburuz.



“Mintegi hau antolatu dugu euskarak testuinguru konplexu batean zer indargune, zer ahulgune, zer aukera eta zer mehatxu izan ditzakeen antzemateko, euskararen etorkizuneko erabilera-esparruak identifikatu eta horietan eragin nahi baitugu”, aurreratu zuen MIREIA ZARATE Sabino Arana Fundazioaren presidenteak jardunaldiaren hasiera-ekitaldian.

Andres Urrutia euskaltzainburuak ere etorkizunari buruz hitz egin zuen bere txandan, eta azpimarratu zuen “egungo gizartean gertatzen denari adi egon behar dugula eta erantzun azkarra eman behar diogula; biharko Euskal Herria aurreikusi behar dugu eta euskararen presentzia ziurtatu behar dugu etorkizun horretan, euskararen presentziak bizia eta eraginkorra izatea nahi badugu, ez testigantzazkoa”.

“Etorkizuneko euskal gizartea: euskara erabiltzeko eremu berriak” izenburuaren ildoan, honako hauek parte hartu zuten mintegian: IÑAKI IURREBASO EHUKo irakaslea; GORKA ESPIAU Agirre Lehendakari Centerreko zuzendaria; IBON ZUGASTI Prospektikerreko zuzendaria; XABIER BARANDIARAN Deustuko Unibertsitateko irakaslea; ARANTZA DEL POZO Vicomtech enpresako Hizkuntza Teknologien eta Ahotsaren Saileko zuzendaria; Andoni EIZAGIRRE, Mondragon Unibertsitateko irakaslea, eta ION MUÑOA, Deustuko Unibertsitateko irakaslea.



Erramun Osa Euskaltzaindiko idazkariordeak koordinatu zuen jardunaldia, eta mahai-inguruak aurkeztu eta moderatu eta aurkeztu zituzten ondokoek: BELEN URANGA, Soziolinguistika Klusterreko teknikaria; JON AIZPURUA, euskaltzain urgazlea eta Euskaltzaindiko Sustapen Batzordeko kidea; Gotzon Lobera, euskaltzain urgazlea eta Euskaltzaindiko Sustapen Batzordeko kidea; IÑAKI MARTINEZ DE LUNA,

euskaltzain urgazlea eta Euskaltzaindiko Sustapen Batzordeko kidea; eta SAGRARIO ALEMAN, euskaltzain osoa eta Euskaltzaindiko Sustapen Batzordeko burua.

7.2 Immigrazioa eta euskera. Udaletako politika berriak

Euskara biziberritzeko prozesuan garrantzi handia dute gure lurraldera hurbiltzen diren etorkinak hizkuntzaren erabilerara erakartzeko udal mailan egun bultzatzen diren politika eta ekimenek.



Euskaltzaindiak eta Sabino Arana Fundazioak mintegi bat antolatu zuten iazko abenduan, hizkuntzen arteko bizikidetzan eragina duten alderdiei buruzko azaleko azterketa egiteko. Aurten, berriz, helburua bazen gaian sakontzea, eta euskal udalak etorkinak euskarara erakartzeko sustatzen ari diren politikak, tresnak eta diskurtsoak aztertzea, horretarako esperientzia positiboak kontuan hartuta, bai eta bidean aurkitutako zailtasunak ere.

“Migrazioa eta euskara: udaletako politika berriak” izenburuaren ildoan, ANDRES URRUTIA euskaltzainburuak eta MIREIA ZARATE Sabino Arana Fundazioaren presidenteak hasiera eman zioten jardunaldiari, abenduaren 15ean.

Ondoren, JOSE ANTONIO OLEAGAK, Begirune Immigrazio Ikerketarako Laborategiko kideak, inklusioaren eta integrazioaren arloan gauzatzen ari diren zenbait politika publiko azaldu zituen, bai eta euskarak testuinguru horretan duen lekua ere. ANDRES IÑIGO euskaltzain oso eta Euskaltzaindiko Sustapen Batzordeko kideak egin zituen aurkezle eta moderatzaile lanak.

Geroago, XABIER AIERDIK, Begirune Immigrazio Ikerketarako Laborategiko kideak, immigrazioari buruzko tokiko esperientziak bildu dituen proiektu baten nondik norakoak azaldu zituen, euskara jomugan dela. JON AIZPURUA euskaltzain urgazleak eta Sustapen Batzordeko kideak moderatu zuen hitzaldia.

ENARA EIZAGIRRE eta EDURNE URRESTARAZU ikertzaileek herri euskaldunetan bizi diren migratzaile erdaldunen bizipenak eta iritziak ekarri zizkiguten. IÑAKI MARTINEZ DE LUNA euskaltzain urgazle eta Sustapen Batzordeko kideak hitzaldia aurkeztu zuen eta osteko eztabaida moderatu zuen.

Jardunaldiaren bigarren zatian, udal ordezkariak tokian tokiko esperientziak partekatu zituzten entzuleekin. Ildo horretan, AINARA ORMAETXEA Ordiziako Udaleko migrazio- eta aniztasun-teknikariaren, SAMIRA GODDI Errenteriako Udaleko bizikidetza- eta lankidetza-teknikariaren eta ALEX VADILLO eta ELENA URZELAI Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzuko teknikariaren ekarpenak



entzun genituen. Mintegiaren bigarren atal horretan, hizlariekin batera, GOTZON LOBERA euskaltzain urgazle eta Euskaltzaindiko Sustapen Batzordeko kideak, PATXI SAEZ Euskaltzaindiko Sustapen Batzordeko kideak eta SAGRARIO ALEMAN euskaltzain oso eta Euskaltzaindiko Sustapen Batzordeko buruak ere parte hartu zuten aurkezle eta moderatzaile-lanetan.

Euskaltzaindiako idazkariorde eta euskaltzain urgazle ERRAMUN OSAK koordinatutako mintegi horretan, berrogeita hamar (parte-hartzaileen gehienekoa) euskaltzainek, soziolinguistak, unibertsitateko irakasleak eta euskal kultura eta hizkuntza alorretako ordezkariak parte hartu zuten.

8 GAZTERIA

8.1 Tailer didaktikoak eta ahozko historiari buruzkoak

Tailerren helburu nagusiak hauek dira: sormena garatzea, haurren artean arte plastikoak sustatzea eta ezagutzea, euskara eta euskal historia sustatzea eta taldean eta bakarka lan egitea.

ETORKIZUNA ERAIKITZEN. BILBO ERAIKITZEN
CONSTRUYENDO EL FUTURO. CONSTRUYENDO BILBAO

Tailer honek Bilboko iragana eta oraina ezagutzea du helburu, atzoko eta gaurko irudiak baliatuz. Horretarako, antzinako eta egungo argazkiak, koloreztatzeko margoak eta kartoizko oinarri bat erabiltzen ditugu; gero, muntaia egiten dugu hiru dimentsioko efektua lortzeko.

ARTEA, ZIENTZIA, TEKNOLOGIA, BERRIKUNTZA: GANBERA ESTENOPEIKOA
ARTE, CIENCIA, TECNOLOGÍA, INNOVACIÓN: CÁMARA ESTENOPEICA

Tailer honetan, argazki-kamera tradizionalen printzipioak garatzen ditugu, eta argazki-kamera bat eraikitzen dugu kartoizko kutxa huts batetik abiatuta, ganbera estenopeiko bihurtuta.

ARTEA, ZIENTZIA, TEKNOLOGIA, BERRIKUNTZA: TXIMISTARGAZKIA
ARTE, CIENCIA, TECNOLOGÍA, INNOVACIÓN: RAYOGRAMA

Tailer honen bidez, argazkigintza lantzen dugu oso ohikoa ez den ikuspegi batetik, argazkiak egiteko teknika guztiz desberdina baita; izan ere, irudiak lortzen dira argazki-kamerarik gabe.

ARTEA. ZIENTZIA, TEKNOLOGIA, BERRIKUNTZA: KOLORE HIPERKONEKTATUAK
ARTE, CIENCIA, TECNOLOGÍA, INNOVACIÓN: COLORES HIPERCONECTADOS

Tailer honen bitartez, kolorearen izaera abstraktu eta esperimentalena lantzen dugu.

MENDE BERRIKO ESKOLA. KULTURARTEKOTASUNA: TAUMATROPOAK
LA ESCUELA DEL NUEVO SIGLO. MULTICULTURALIDAD: TAUMATROPOS

Tailer honen helburua da umeei zinemaren oinarritzko hastapenak erakustea, jolas-ildoko jardura sortzaile bat erabiliz. Izan ere, jostailu optiko horrek mugimenduan dagoen irudia lantzen du.

HISTORIA. EZAGUTU ERALDATZEKO: ARBOGLIFOAK
HISTORIA. CONOCER PARA TRANSFORMAR: ARBOGLIFOS

Tailer honen bidez, euskal artzainek munduko bazter askotara egindako migrazioaz jarduten dugu, batez ere, Amerikara egindako migrazioaz, eta arboglifoak zer diren azaltzen diegu.

GABONETAKO ZORION-TXARTELA, PIKA PIKA
FELICITACIÓN NAVIDEÑA ANIMACIÓN PIKA PIKA

Tailer honen helburua Eguberria zoriontzeko txartela sortzea da, Pika Pika animazio-teknika erabiliz.

“MUSEOKO MATERIALEN BIZITZA” HITZALDI-ZIKLOA

“PREBENTZIOZKO KONTSERBAZIOA”

2012. urteaz geroztik, Euskal Abertzaletasunaren Museoak museoko praktikak eskaintzen dizkie UPV/EHUko fakultate guztietako ikasleei, Fundazioak jorratzen dituen arlo guztietan.

2019an, elkarlanean hasi ginen Leioako Campuseko Arte Ederretako Unibertsitateko Kontserbazio eta Zaharberritze Graduko eta Arte Garaikidearen Kontserbazio eta Erakusketa Masterreko irakasleekin, eta ordutik hona ikasle askok egin dituzte prebentziozko kontserbazio-praktika berariazkoak gure instalazioetan.

Eta, hain zuzen ere, lankidetzaz horretatik sortu da hitzaldi eta esperientzien ziklo hau, “Museoko materialen bizitza” izenburua daroana eta 2020an hasi dena. Ziklo horren helburua da hainbat jakintza-arlotako espezialisten ezagutza eta gure museoan praktikak egin dituzten ikasleen bizipenak lotzea.

Prebentziozko kontserbazioari buruzko hitzaldi-ziklo honi hasiera eman diogu BEGOÑA ARISTEGI Arte Ederretako lizentziadun eta prebentziozko kontserbazioaren arloko adituaren eskutik, bai eta Arte Ederren Fakultatean lizentziatu eta gure museoan praktiketako ikasle izan zen LUISA OLIVARESEN eskutik. Azkenak museoan izandako esperientzia azaldu zien parte-hartzaileei.

“EHUNAREN KONTSERBAZIOA”

SOLEDAD SANTISTEBANEK, Geografia eta Historiako lizentziadunak eta ehungintzan espezializatutako prebentziozko kontserbazioan adituak beste hitzaldi bat eman zuen ehunez egindako materialetan aurki ditzakegun arazo nagusiak azaltzeko, batez ere, materialen tipología dela eta, askotan endekatzeko joera handia duten zuntz naturalak baitira, besteak beste, ingurumen- edo manipulazio-faktoreengatik.

Horretarako, Sabino Arana Fundazioaren Abertzaletasunaren Museoaren ehun-funtsarekin urteetan egindako lana hartu zen oinarritzat. Funts horrek mota askotako mila pieza baino gehiago ditu. Santistebanek kontserbazioaren eta instalazioaren arrazoiak azaldu eta aztertu zituen, egun eskura ditugun baliabideetan funtsaturik.

8.2 Genealogiari buruzko hitzaldi-tailerra

Genealogia tailerreko ikasle talde bat izan zen Sabino Arana Fundazioan martxoaren 5ean. Ekimena adinekoentzat antolatzen da eta Bilboko Alde Zaharreko SASOIKO BBK Zentroak sustatzen du, Euskal Herriko agiritegietan gordetzen diren funtsak ezagutzeko egiten ari diren jardueren esparruan.

Sabino Arana Fundazioaren eta Euskal Abertzaletasunaren Museoaren zein Agiritegiaren sorrerari buruzko azalpen labur baten ondoren, gure agiritegiko arduradunek agiritegi historiko batek eskaintzen dituen zerbitzuak eta funtzionamendua zertan dautzan azaldu zieten ikasleei. Ondoren, Dokutalde enpresak antolatutako tailerreko kideek gure dokumentu-ondarearen zati garrantzitsua zuzenean ikusteko aukera izan zuten ikasleek: agiritegiko dokumentuak, memoriak, egunerokoak, genealogia-lanak, gerra garaiko materialak (ehunak, armak, maketak eta abar).

Antolatzaileen arabera, ekimena eta, zehazki, tailerra, “Aukera paregabea da gure historia ezagutzeko eta gure memoria historikoa gordetzeko interesa piztu dezagun”.

9 EUSKAL ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA

I. AGIRITEGIAREN KUDEAKETA

Gure zentroan bildutako dokumentu-funtsak antolatzea, deskribatzea eta kontserbatzea, bai eta funts horiek zabaltzea eta ikertzaileei eta partikularrei zerbitzua ematea ere agiritegiaren jarduera izaten jarraitu zuen joan den urtean, koronabirusaren pandemiaren eraginez.

Martxoaren 13tik (Euskadiko lehen osasun-alarmaren adierazpena) ekainaren 8ra arte izandako konfinamenduan, agiritegiaren jarduera ez zen gelditu eta bide telematikoz gauzatu zen, gure instalazioetan aurrez aurre lan egitea ezinezkoa izan zelako, agiritegiaren, liburutegiaren eta hemerrotekaren datu-baseak berrikusiz, zuzenduz eta gainbegiratzuz, bai eta jasotako ikertzaileak eta kontsultak erregistratuz eta artatuz ere –betiere, unean uneko aukeren barruan–. Era berean, dokumentazio-dohaintzak jasotzen jarraitu zen, aurreko urteetan bezala.

Egoera berezi horretan, azpimarratu behar da gure ohiko lanaren eta arduraldiaren ia erdia egoerak eskatzen zituen proiektu berriak aurrera ateratzera bideratu zela, hala nola eduki digitalak (efemeride historikoak, argazkiak eta bideoak) gure web orrian, sare sozialen profiletan, YouTube-ko kanalean eta abarretan zabaltzeko Internet bidez.

Lau Haizetara – Ateak Zabalik ekimenak, gure webgunean (<https://www.sabinoarana.eus/Ateak-Zabalik>), hainbat baliabide biltzen ditu ordutik, egunero eta astero, erabiltzaileengana linean hurbiltzeko, denengandik gertuago egoten jarraitzeko eta gordetzen eta lotzen ditugun ezagutzak partekatzeko.

Bestalde, lan horiekin batera, adierazi behar dugu 2020ko urtariletik abendura bitartean bederatzi gazte artatu eta prestatu ditugula: graduako bost ikasle, nazioarteko masterreko ikasle bat eta lan-trantsizioko hiru bekadun. Prestakuntza modu telematikoa konfinatu zen bitartean ere mantendu zen.

A) AGIRITEGIKO FUNTSAK

- Ondokoek emandako dokumentazioa antolatzea eta ikertzaileen esku jartzea:
 - Francisco Abrisketa (agiritegi pertsonala)
 - Aita Mauro Elizondo (Engracio Aranzadi “Kizkitza” eta Ángel Zabala eta José Arriandiaga “Joala”ren arteko gutunak, XX. mendearen hasieran).
 - Juan Larrazabalen funtsa (Kubako eta Mexikoko kontsula Bilbon, 1937an).
 - Iruñeko EAJ/PNV alderdiaren Euzko Gaztedijaren dokumentazioa, gerra aurrekoa
- Norbanakoen dohaintzetatik datozen funts historikoen dokumentu-deskribapeneko 120 fitxen erregistroa; horien artean, Iñaki Anasagastiren, Bujanda familiaren edo Arantzazu Rojoren dohaintzak nabarmentzekoak dira.
- Ikus-entzunezko dokumentuen 87 fitxen erregistroa (VHS, CDak eta DVDak).

B) LIBURUTEGIKO FUNTSAK

Aurten 341 lan baino ezin izan dira jaso Liburutegian. Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiko Liburutegia osatzen duten monografiak 46.050 dira guztira gaur egun. Kopuru horretatik, 34.570 Bilboko instalazioetan daude bilduta, eta gainerakoa, 11.480 ale Arteako urruneko biltegian.

Duela urte batzuetatik egiten ari garen moduan, Bilboko gordailuan ale bakarra gordetzen da lan bakoitzaren edizio bakoitzeko, baldin eta gaia eta edukia bat badatoz gure liburutegi espezializatuan ezarritako irizpideekin. Gainerako monografiak Arteako urruneko liburutegira eramaten dira (balioa kontserbazioagatik, bikoiztasuna gorabehera) edo beste helmuga batzuetara bideratzen dira (Gaintzaren bitartez).

Ekitaldian zehar, Juan Mari Atutxa, Luis Javier Telleria eta Gaintzaren dohaintzetatik ateratako liburuak nabarmendu behar dira, besteak beste, baina oraindik ez dira zenbatu Txomin Saratxagaren alargun Sorkunde Arregik abenduaren erdialdean egindako Kirikiño Funtsaren dohaintza (ia ehun kutxa).

C) “UZTURRE” HEMEROTEKA

Urtean zehar jasotako aldizkako argitalpenen aleak erregistratzen eta katalogatzen jarraitu da. Aleak banan-banan sailkatu, ordenatu eta egiaztatzeko lanak egin ondoren, errepikatuta dauden ala ez jakiteko. Hala, 28 titulu berri sartu dira Hemerrotekan 2020an, 1.416 zenbaki dituztela. “Uzturre” hemerrotekak, 500 metro lineal baino gehiagoko biltegia duenak, orain arte 7.386 titulu ezberdin ditu, 191.881 ale biltuta.

Bestalde, “Hustuketa” datu-basea (informazio historikoa duten artikulak, hainbat argitalpenetan argitaratuak –*Euzkadi, Alderdi, Hermes, Bizkaitarra, Deia, Euzko Deya...*) dagoeneko 14.277 erregistrotara iritsi da, aurten 1.700 erreferentzia baino gehiago sartu ondoren.

II. KONTSULTAK

2020an, 244 informazio-eskaera jaso dira Abertzaletasunaren Agiritegian, aurreko ekitaldiren ildo beretik (hau da, kontsulta gehienak posta elektronikoz (134) eta telefonoz (56), aretoan zuzenean (23) edo gure web-orrian dauden formularioak erabiliz (26)). Bitxikeria gisa, 5 kontsulta jaso dira WhatsAppetik.

Oroimen Historikoaren inguruko informazio-eskaerak nagusi dira: gerraren, erbestealdiaren edo norbanakoen (gudariak, presoak, desagertuak eta abar) ingurukoak. Aipatutakoen familiartekoei, erakundeek, hedabideek zein komunikazio-enpresek egin ohi dituzte eskaerak, informazioa ikerlan, urtemuga, proiektu, lan zehatz eta abarretan erabiltzeko.

Agiritegian urtero-urtero jasotzen diren kontsultei dagokienez, esan dezagun (urtero adierazten dugun moduan) informazioa kontsultatzeko eskaera egin eta gure erantzunean hartutako datuak aztertu ondoren, agiritegira jatorrizko agiriak ikusten datozenak ere zenbatzen direla. Aretoko erabiltzaile horien –ikertzaileak, erakundeetako ordezkariak, irakasleak, ikasleak eta/edo norbanakoak– izen-abizenak eta ikergaia jasotzen dira

ikertzaileei eskainitako oroitza-txostenaren azken atalean. Ikergaien zerrenda, argi denez, urtean izandako kontsulten erakusgarri eta laburpena da.

Horra hor jasotako kontsulten banakaketa:

JASOTAKO KONTSULTEN BANAKAKETA		
Norbanakoak: 115	Unibertsitatea / Ikerkuntza: 51	Gizarte- eta Kultura-erakundeak / Euskal Administrazio Publikoa: 29
Hedabideak: 16	Enpresak / Ekoiztetxeak: 16	PNV / SAF: 17

1992ko urritik hona, 6.653 kontsulta jaso dira guztira agiritegian.

III. HISTORIA ETA DOKUMENTAZIOARI BURUZKO AHOLKULARITZA: lankidetzak, solasaldiak, hitzaldiak, jardunaldietako parte-hartzea, argitalpenen kontrola, ikerketa-lanen koordinazioa.

- DEIA: “Historias vascas” sailarentzako artikulak. Euskal Abertzaletasunaren Agiriak koordinatzen du saila eta 41 artikulua argitaratu ziren 2020an.

Argitalpenen kontrola:

- Gregorio Arrienen “Bizkaiko auzo-eskolak”.

Biltzarrak:

- Amerikako euskal argitalpenei buruzko biltzarrean (birtualean) parte hartzea, komunikazioak aurkeztuz:
- “Nacionalismo vasco en el exilio americano durante la dictadura franquista (1957-1965): Las publicaciones del Frente Nacional Vasco – Eusko Aberri Alkartasuna” (Guezala, Luis de)
- “Artículos de Galindez en la prensa de exilio” (GOIOGANA, Iñaki)

Hedabideekiko kolaborazioak eta beste ekitaldi batzuk:

DATA	EKITALDIA	PARTICIPANTE
2020/01/20	Hamabost egunean behin, ekainera arte, lankidetzak Bizkaia Irratian.	GOIOGANA, IÑAKI
2020/03/05	Artxiboak gidatutako arreta eta bisita genealogia tailerrean, BBK-k antolatuta eta Dokutaldek emanda.	JAUREGI, EDUARDO
2020/06/01	Ikurrinaren historiaren grabazioa ETBko telesail baterako	GUEZALA, LUIS DE
2020/09/28	New Media Euskadik SEGUNDO OLAETARI buruz egindako elkarrizketa “Zertarako balio du historiak” telesaileko atal baterako ETB-1en	GOIOGANA, IÑAKI

IV. NORBANAKOEN DOHAINTZAK

2020an, 27 pertsonak eta/edo erakunde bat egin dute Abertzaletasunaren Agiritegiarekin dokumentazioa emanda. Kopuru horretatik, 13 email berri izan dira aipaturiko ekitaldian.

Bolumenagatik, Iñaki Anasagastik edo Sorkunde Arregik Bilboko Kirikiño liburu-dendako funts bibliografikoarekin eta dokumentu-artxiboarekin egindako etengabeko dohaintzak nabarmendu ditzakegu.

Artxiboan guztira 1.553 dohaintza jaso dira orain arte.

V. IKERTZAILEAK

2019an, 40 ikertzailek kontsultatu dituzte gure agiri-funtsak aretoan bertan (iazko kopuruaren ia berdina).

Hona hemen ikergaiak:

Ikergaiak
Kataluniako prozesu independentista: Iñigo Urkulluren dokumentuak, bitartekaritza Kataluniako prozes delakoan. Dokumentazio hori kontsultatu dute dozena bat komunikabidek eta gaian interesa duten beste historialari batzuek
ELAI ALAI, Segundo Olaeta, Sebero Altube, Txillardeggi, Arruti familia
Gehiengo eta gutxiengo nazionalen arteko harremanak Belgikan, Espainian eta Italian, 1919 eta 1939 artean
Santoñako Ituna
Gerra Zibileko biktimak: euskal presoak Duesoko espetxean (Santoña)
Bilboko leku karlistak eta espiritu liberala
Joaquín Lucarini, Euskal eliza, Jesús Zarate Barona "Patxolo"
Zalla (Bizkaia), Manuel Sainz de Taramona...
Euskal umeen erbestealdia
Nikole eta Sabino Arana
Euskal artea eta nortasuna Rio de la Platan (1877-1954)
Argazkia Bilboko egunkarietan 2. errepublikan: <i>Euzkadi</i> egunkaria
Gumersindo Azkarate koronela
Emakume Abertzale Batza (EAB) eta Alava Sarea
Berreskuratze Batzordea (Ibilgailuak)
Emilio Agote Martiarena, errepresaliatua
Eduardo Nafarrate
Frantziar erbesteratutako emakume errepublikarren laneratzea
Poxpoliñak 1932ko Aberri Egunean
Tere Verdes
Sekretu ofizialak
José Azkarate Etxandi
Hemingway eta euskaldunak - Euskal nazionalismoa eta historia klasikoaren eragina
Gerrako ume euskaldunak SESBera ebakuatuak
Berrikuntza eta komunikazioa: telefonoa Euskal Herrian (1882-1936)

VI. INFORMAZIOAREN ZABALKUNDEA: WEBGUNEA – SARE SOZIALAK

- Sabino Arana Fundazioaren webgunean dagoen datu-basea aldiari behin eguneratzea, gure dokumentu-funtsen artean biltzen ditugun liburu, aldizkari eta egunkariei buruzko informazioarekin.

- Efemerideak sare sozialetarako (Facebook, Instagram eta Twitter)
- Mezu@buletin elektronikoa bidaltzea, urtero egiten ditugun jardueren berri emateko Erabiltzaileen kopuruari eustea.
- Ekitaldiak *streaming* bidez zuzenean zabaltzea; gure egoitzako Lehendakari Agirre aretoan egiten diren jardueren bideo-grabazioak biltegiratzea (hitzaldiak, mintegiak, liburuen aurkezpenak, etab.) eta ondoren Internetera igotzea, gure webgunetik edo YouTubeko profiletik askatasunez ikusteko.
- Webguneak mantentzea: propioa (Fundazioa), Agirre Lehendakaria, Sabin Etxea eta Sabino Arana Goiri.

Txosten honen hasieran adierazi den bezala, urtero egiten diren hedapen-jarduerekin batera –aurreko paragrafoetan aipatutakoak–, 2020an nabarmen handitu da informazioaren zabalkundea, koronabirusaren krisiaren ondorioz hiru hilabetez jasan dugun konfinamendua dela eta.

Egoera horretan, datu-baseen eguneratzea areagotu egin zen, ez bakarrik antolatzen diren eduki berriak sartu zirelako, ikertzaileen eta norbanakoen eskura jarri eta ezagutu zirelako, baita ortografia-akatsak zuzendu zirelako, estiloak eta datuak bateratu zirelako eta abar ere, horiek osatzen dituzten milaka erregistroak berrikusiz.

Gainera, apiriletik aurrera, bi atal berri sortu dira Sabino Arana Fundazioaren webgunean, eta horiek eguneratu eta elikatzen dira ordutik:

- Lau haizetara - Ateak Zabalik atala, egunero eta astero berritzen diren Euskal Historiak, Argazkiak eta Bideoak atalekin, eta
- Abertzaletasunaren Museoa atala: Bilduma, Argazki Funtsa, Erakusketak, Hitzaldiak, Tailer didaktikoak, Bitxikeriak eta Kontsultak

Sare sozialen arabera, erabiltzaileen eskura jarri ditugun eduki historikoek gora egin dute, batez ere, mugimenduko irudi formatuan (hogeita hamar bideo baino gehiago) eta formatu finkoan (ehunka argazki), eta aurten 145 harpidedun berri eta ia 25.000 bistaratze izan dira.

10 EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA

10.1 Urteko balantzea

2019ko ekitaldian, Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak, batik bat, argazki-funtsa katalogatzen, pinakoteka atontzen eta dohaintza berriak erregistratzen, inbentarioan sartzen eta katalogoan jasotzen jardun du.

Aurreko urteetan bezala, UPV/EHUko Letren eta Arte Ederren fakultateetako hamabost bat ikasle izan dugu gurean. Azkenei dagokienez, Kultura ondasunak kontserbatu eta zaharberritzeko Graduko eta Arte garaikidea kontserbatu eta erakusteko Masterreko ikasleek jardun dute lanean fundazioan. Horiek guztiek 1.700 ordu baino gehiago eman dute funtsotako irudien digitalizazioa eta deskribapen teknikoa egiten, tratamendua gauzatzen eta gure pieza batzuk zaharberritzen.

Azkenik, behean ageri diren funtsak antolatzen, inbentarioan sartzen eta katalogoan jasotzen jarraitu dugu lanean:

Argazki-funtsa: 2020an jasotako 1.800 argazki baino gehiago erregistratu, katalogatu eta “Sabino Arana Fundazioa” deritzon moldea txertatu diegu irudiei:

- Norbanakoek egindako dohaintzen funtsetan gordetako argazkiak erregistratzea, katalogatzea, digitalizatzea eta irudiei moldea txertatzea.
- Erregistratutako irudien deskribapen fisikoa egitea eta kontrastea hobetzea.
- Identifikatzaile, egungo egoera, kopien kopuru eta beste ezaugarri batzuk inbentarioan jasotzea.
- Irudiak indexatzea, zeini dagokion testu-fitxaren arabera.
- Tamaina, egungo egoera eta abarren arabera, irudiak euskarri egokietan jartzea, argazki-albumetan gordeta eta hainbat tamainatako zorroetan –pH neutrodunak eta argazkiari egokitutakoak– sartuta.

Arte Grafikoak. Kartelen atala: inbentarioa lantzen jarraitu dugu, sarrera berriak txertatu dira eta horiek erregistratu, argazki digitalak erabiliz.

Atal honetan, Arte Ederren Fakultateko Kultura ondasunak kontserbatu eta zaharberritzeko Graduko ikasleek eta Arte garaikidea kontserbatu eta erakusteko Masterreko ikasleek jardun dute lanean, praktikaldian. Guztira, 150 erregistrotik gora jaso dituzte inbentarioan aipatutako ikasleok eta euron kontserbazio-egoera ebaluatu dute.

Arte Grafikoak. Eranskailuen atala: erregistro berriak katalogatzen jarraitu dugu, Arte Ederren eta Letren fakultateetako ikasleek egindako lanari esker. Horrela, 1.300 erregistrotik gora katalogatu eta jaso ditugu inbentarioan.

Dekorazio-arteak: 900 objektu baino gehiago berrantolatu eta berriro kokatu ditugu. Arte Ederren Fakultateko praktiketako ikasleek jardun dute zeregin horietan. Gainera, gai berriak erregistratu eta katalogatu dira, eta ale batzuen garbiketa berezia egin dute.

Pinakoteka: museoan aurrean jaso ditugun pieza berriak katalogatu eta instalatu dira. Arte Ederretako Fakultateko praktiketako ikasleek egin dute lan hori.

Era berean, Masterreko ikasleek museoan gordetako zenbait pieza zaharberritu dituzte, apur bat narriatuta baitzeuden, garbiketa sakona eginez eta kalterik hartutako margolan-zatiak zaharberrituz, eta 94/0004 margolana zaharberritzeko proposamena egin dute.

Ehun-funtsa: aurten, EAB funtsaren ehuneko materialaren azterketa xehatua egin da, eta, geroago, zenbait piezatan esku hartu da. Gainera, 2020ko ekitaldiaren barruan, gure erakundera heldu diren ale berriak aztertu, inbentarioan jaso eta katalogatu dira.

Prebentziozko kontserbazioa: atal honetan, ph neutrozko materialak erabiliz bilgarri espezifikoa sortu dugu piezetako batentzat.

Deskribatutako eta inbentariatutako funtsei dagokienez, nabarmentzekoa da joan den 2020ko ekitaldian Euskal Abertzaletasunaren Museoak 200 kontsulta ingururi erantzun ziela, eta 360 irudi desberdin baino gehiago erabili zirela Facebookerako eta Instagramerako argazki-funtsari eta Deia-n argitaratutako "Historias vascas" saileko artikuluei gagozkiela.

Sabino Arana Fundazioaren webgunearen barruan leiho bat ireki dugu, Museoari eskainitakoa.

Gaur egun, 2020an jasotako dohaintzak dagozkien euskarrietan inbentariatzen eta instalatzen jarraitzen dugu. Ildo horretan, funts desberdinetarako berreskuratutako materialak nabarmendu behar dira: argazkigintza, ehungintza, arte grafikoak, dekorazio-arteak, etab.

Bestalde, gure eskaintza didaktikoa handitu egin zen 2020an, eta hogeita hamar tailer egin genituen azaroan eta abenduan pandemiaren eraginez martxotik irailera bitartean programatutako tailer guztiak bertan behera utzi behar izan baikenituen. Sormenezko motibazio-tailerrak izan dira, adin desberdinetako ikasleentzat.

Unibertsitateko ikasleentzako hitzaldi/tailer ziklo bat ere garatu dugu, urrian eta abenduan.

10.2 Kontsultak eta lankidetzak

2019ko ekitaldian, Euskal Abertzaletasunaren Museoak 250 kontsultari baino gehiagori erantzun die eta 2.000 irudi baino gehiago igorri dizkie honako hauei:

a. Hedabideak: *Diario de Burgos*, *EITB* ("Itxi Liburuak" programa), *EITB* ("360º" programa), Euskodok, *DEIA* egunkaria, *Mugalari* aldizkaria, *Txalaparta* aldizkaria...

b. Erakundeak: Elorrioko Udala, Güeñesko Udala, Gordexolako Udala, Basauri Uri Buru Batzarra, Bizkaikoa, ARTEA Construcciones enpresa, Euskal Herria Museoa, Bilbao 700 Fundazioa, Bilbao Arte Fundazioa, Eusko Jaurilaritza, GOGORA Memoria, Bizikidetza eta Giza Eskubideen Institutua, Bizkaiko Batzar Nagusiak, K6 Gestión Cultural, Krea Comunicación, Leioa Uri Buru Batzarra, Bilboko Arte Ederren Museoa, Mutriku Uri Buru Batzarra, ORBELA Ingurumen Ikerketa eta Heziketa, Eusko Legebiltzarra, Euzko Alderdi Jeltzalea, EBB, Portugalete Uri Buru Batzarra, Aranzadi Zientzia Elkartea, UPV/EHUko Historia Garaikideko Saila, Isabel I.a Unibertsitatea, Westminstergo Unibertsitatea...

c. Ekoiztetxeak: Antonio Ferrer, Baleuko, New Digital Media...

d. Ikertzaileak eta norbanakoak.

LANKIDETZAK

Gure pieza batzuk lagata, museo eta erakunde hauetako erakusketa iraunkorretan parte hartzen dugu:

- Gernikako Bakearen Museoaren Fundazioa
- Bilboko Arte Ederretako Museoa
- Euskal Poliziaren Museoa
- Museu de l' Exili
- Eusko Legebiltzarra

10.3 Tailer didaktikoak eta hitzaldiak

Tailerren helburu nagusiak hauek dira: sormena garatzea, haurren artean arte plastikoak sustatzea eta ezagutzea, euskara eta euskal historia sustatzea eta taldean eta bakarka lan egitea.

ETORKIZUNA ERAIKITZEN. BILBO ERAIKITZEN CONSTRUYENDO EL FUTURO. CONSTRUYENDO BILBAO

Tailer honek Bilboko iragana eta oraina ezagutzea du helburu, atzoko eta gaurko irudiak baliatuz. Horretarako, antzinako eta egungo argazkiak, koloreztatze margoak eta kartoizko oinarri bat erabiltzen ditugu; gero, muntaia egiten dugu hiru dimentsioko efektua lortzeko.

ARTEA, ZIENTZIA, TEKNOLOGIA, BERRIKUNTZA: GANBERA ESTENOPEIKOA ARTE, CIENCIA, TECNOLOGÍA, INNOVACIÓN: CÁMARA ESTENOPEICA

Tailer honetan, argazki-kamera tradizionalen printzipioak garatzen ditugu, eta argazki-kamera bat eraikitzen dugu kartoizko kutxa huts batetik abiatuta, ganbera estenopeiko bihurtuta.

ARTEA, ZIENTZIA, TEKNOLOGIA, BERRIKUNTZA: TXIMISTARGAZKIA ARTE, CIENCIA, TECNOLOGÍA, INNOVACIÓN: RAYOGRAMA

Tailer honen bidez, argazkigintza lantzen dugu oso ohikoa ez den ikuspegi batetik, argazkiak egiteko teknika guztiz desberdina baita; izan ere, irudiak lortzen dira argazki-kamerarik gabe.

ARTEA. ZIENTZIA, TEKNOLOGIA, BERRIKUNTZA: KOLORE HIPERKONEKTATUAK ARTE, CIENCIA, TECNOLOGÍA, INNOVACIÓN: COLORES HIPERCONECTADOS

Tailer honen bitartez, kolorearen izaera abstraktu eta esperimentalena lantzen dugu.

MENDE BERRIKO ESKOLA. KULTURARTEKOTASUNA: TAUMATROPOAK LA ESCUELA DEL NUEVO SIGLO. MULTICULTURALIDAD: TAUMATROPOS

Tailer honen helburua da umeei zinemaren oinarritzko hastapenak erakustea, jolas-ildoko jardura sortzaile bat erabiliz. Izan ere, jostailu optiko horrek mugimenduan dagoen irudia lantzen du.

HISTORIA. EZAGUTU ERALDATZEKO: ARBOGLIFOAK HISTORIA. CONOCER PARA TRANSFORMAR: ARBOGLIFOS

Tailer honen bidez, euskal artzainek munduko bazter askotara egindako migrazioaz jarduten dugu, batez ere, Amerikara egindako migrazioaz, eta arboglifoak zer diren azaltzen diegu.

GABONETAKO ZORION-TXARTELA, PIKA PIKA FELICITACIÓN NAVIDEÑA ANIMACIÓN PIKA PIKA

Tailer honen helburua Eguberria zoriontzeko txartela sortzea da, Pika Pika animazio-teknika erabiliz.

“MUSEOKO MATERIALEN BIZITZA” HITZALDI-ZIKLOA

“PREBENTZIOZKO KONTSERBAZIOA”

2012. urteaz geroztik, Euskal Abertzaletasunaren Museoak museoeko praktikak eskaintzen dizkie UPV/EHUko fakultate guztietako ikasleei, Fundazioak jorratzen dituen arlo guztietan.

2019an, elkarlanean hasi ginen Leioako Campuseko Arte Ederretako Unibertsitateko Kontserbazio eta Zaharberritze Graduko eta Arte Garaikidearen Kontserbazio eta Erakusketa Masterreko irakasleekin, eta ordutik hona ikasle askok egin dituzte prebentziozko kontserbazio-praktika berariazkoak gure instalazioetan.

Eta, hain zuzen ere, lankidetzaz horretatik sortu da hitzaldi eta esperientzien ziklo hau, “Museoko materialen bizitza” izenburua daroana eta 2020an hasi dena. Ziklo horren helburua da hainbat jakintza-arlotako espezialisten ezagutza eta gure museoan praktikak egin dituzten ikasleen bizipenak lotzea.

Prebentziozko kontserbazioari buruzko hitzaldi-ziklo honi hasiera eman diogu BEGOÑA ARISTEGI Arte Ederretako lizentziadun eta prebentziozko kontserbazioaren arloko adituaren eskutik, bai eta Arte Ederren Fakultatean lizentziatu eta gure museoan praktiketako ikasle izan zen LUISA OLIVARESEN eskutik. Azkenak museoan izandako esperientzia azaldu zien parte-hartzaileei.

“EHUNAREN KONTSERBAZIOA”

SOLEDAD SANTISTEBANEK, Geografia eta Historiako lizentziadunak eta ehungintzan espezializatutako prebentziozko kontserbazioan adituak beste hitzaldi bat eman zuen ehunez egindako materialetan aurki ditzakegun arazo nagusiak azaltzeko, batez ere, materialen tipología dela eta, askotan endekatzeko joera handia duten zuntz naturalak baitira, besteak beste, ingurumen- edo manipulazio-faktoreengatik.

Horretarako, Sabino Arana Fundazioaren Abertzaletasunaren Museoaren ehun-funtsarekin urteetan egindako lana hartu zen oinarritzat. Funts horrek mota askotako mila pieza baino gehiago ditu. Santistebanek kontserbazioaren eta instalazioaren arrazoiak azaldu eta aztertu zituen, egun eskura ditugun baliabideetan funtsaturik.

10.4 Webgunea eta sare sozialak

Aurten, Instagram eta Facebook sare sozialetan argitaratzeko irudiak ematen jarraitu dugu, eta Sabino Arana Fundazioak Flickr plataforman egindako ekitaldiei buruzko informazioa zabaldu dugu.

Pandemiak eragindako etxeratzeak iraun bitartean, museoaren atal bat garatu genuen Sabino Arana Fundazioaren webgunearen barruan. Atal horretan, gure bildumak, jarduera didaktikoak, hitzaldiak eta abar ezagutzera ematen ditugu; horiek guztiak une oro kontsultatu ahal izango dira eta edukiak etengabe eguneratzen joango gara.

10.5 “Nor gara gu?” erakusketa erdi-iraunkorra

“Nor gara gu?” izenburuaren ildoan, Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak erakusketa erdi-iraunkorra antolatu du, Euskal Herriaren hainbat alderdi historiko lantzeko asmoz.

Erakusketa bi solairutan banatuta dago eta 14 gai jorratzen ditu. Erakusketaren haria Sabin Etxea da, hots, hainbat beira-arasetan erakusten diren garai eta gertaerak bizi izan dituen etxea. Horiekin batera, garai hartako hainbat argitalpenen mantxetak baliatuz egindako ibilbide historiko batek erakusten digu prentsak gure historia berrienean izan duen eta duen garrantzia.

Horretarako, beira-arasa bakoitzak euskarri bat dauka (atera daitekeen erretilu bat), edukia azaltzen duen testua erakusten duena, bai eta erakusgai dauden elementu eta objektuen leiendak ere. Bertan, bisitariek QR kodeen bidez landutako gaiei buruzko informazio zehatzagoa aurkitu ahal izango dute.

Nor gara gu? erakusketa erdiiraunkorraren helburua Euskadiko historiaren azken mendeko ibilbide erakargarria eskaintzea da, eta Sabino Arana Fundazioan gordetako objektu, argazki, dokumentu, argitalpen eta abarren bidez gure adinekoek bizi izan dituzten hainbat gertakari herritarrenganatzea.

Hori guztia hainbat eta hainbat norbanakoren eta erakundeen babes eta dohaintzei esker, haien ekarpenek (dokumentuak, liburuak, objektuak, argazkiak, etab.) gure memoria bildu, taldekatu eta handitzen laguntzen baitute.

Horrela, gaur ikusgai ditugun material horiei guztiei balioa emateko eta euskal gizarte osoaren eskura jartzeko dugun betebeharra betetzen dugu, beste erakusketa erakargarri bat sortuta. Zalantzarik gabe, bisitariek ibilbideaz gozatuko dute eta itzultzeko beharra sentituko dute, lehen bisitan oharkabea igaro diren alderdiak atzeman horiez sakonago jabetzeko.

10.6 Zaharberritzeak

Ehungintzari dagokionez, Abandoko 03/0265 EABren banderaren gaineko lan bat egin dugu. Lehenengo eta behin, gorbatak desmuntatu ditugu, leheneratzeko, materia galtzen ari baitziren.

Desmuntatu ondoren, lisatu eta xurgapen bidez garbitu dira, urmaelak finkatu ahal izateko.

Pinakotekari dagokionez, ikasle bat 94/0049 koadroan esku hartzen ari da, “Arte garaikidearen kontserbazio eta erakusketako masterreko” irakasleen ikuskaritzapean. Ikasle hori praktikak egiten ari da Museoan, lan-eremura igarotzeko beka batekin.

NORBANAKOEN DOHAINTZAK

2020ko ekitaldian, 800 pieza eta 1.000 irudi baino gehiago (horietako asko argitaratu gabekoak) jaso dira Euskal Abertzaletasunaren Museoan, gehienak dekorazio-arten sailean gordetzekoak, berrogeita hamar bat norbanakok eta erakundek egindako dohaintzei esker.

11 SABINO ARANA SARIEN EKITALDIA

2019ko SABINO ARANA SARIAK, izaera, berrikuntza eta konpromisoaren eredu. JUAN M^a ATUTXAREN agurra.

Euskal abertzaletasunaren sortzailearen jaiotzaren 155. urteurrenarekin (1865eko urtarrilaren 26a) bat eginik, Sabino Arana Sarien XXXI. edizioa eskaini zuen Sabino Arana Fundazioak 2020ko urtarrilaren 26an.

IÑIGO URKULLU, Eusko Jaurlaritzako lehendakaria, buru izan zuen aurtengo ekitaldian, Saski BASKONIA saskibaloi-taldea; TERNUA GROUP, kirola eta moda jorratzen dituen euskal enpresa taldea; NAIZEN, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako adingabe transexualen familien elkarte; ANDRES URRUTIA notario eta euskaltzainburua; eta GILLES SIMEONI, Korsikako Kontseilu Exekutiboko presidentea, izan ziren saridunak. Edizio honetan, pertsona eta erakunde saridunen ezaugarriak hauexek izan ditugu: oinarrizko kirolarekiko eta prestakuntza osoarekiko konpromisoa, ingurumenarekiko eta elkartasunarekiko errespetua, elkartasunaren zein bidezko gizarteratzearen sustapena, genero-identitatearekiko errespetuan oinarrituta, euskararen sustapena eta hedapena unibertsitatearen eremuan eta Zuzenbidearen arloan, eta nazio aitortzaren eta identitatearen aldeko borroka.



Gainera, Sabino Arana sarien XXXI. edizioa guztiz hunkibera izan zen JUAN M^a ATUTXAREN azken ekitaldia izan zelako Sabino Arana Fundazioaren lehendakari gisa. Ekitaldiaren amaieran, Urkullu lehendakaria eta ANDONI ORTUZAR sarituak agurtzera igo ziren agertokira, eta Juan Mari, hunkiturik, Arriaga antzokia mukuru betetzen zuten ehunka lagun bera eta maitasuna hartu zituen. Ortuzarrek eskerrak eman zizkion Atutxari urte hauetan guztietan egindako lanagatik eta bere esku-hartze eskuzabalagatik, 14 urte eta hiru hilabete Fundazioaren lehendakari jardun duela eta berrogei urtetik gora Herriari eta alderdiari eskainita.

Sariak banatzeko ekitaldia

Fundazioaren zuzendari IRUNE ZULUAGAK lagunduta, Atutxak saridunak hartu ditu banan-banan Arriagako agertokian.

Saski Baskonia

Josean Kerejeta Saski Baskoniako presidentea harro agertu zen klubak bere 60 urteko historian lortu dituen lorpenengatik. Futboleko Lehen Mailan jokatzen duen talde baten (Alavesen) akziodun nagusia da eta, gainera, Saski Baskoniak kirolgune garrantzitsuenetakoa dauka kontinenteko saskibaloi-taldeen artean. Bestalde, 500 zuzeneko lanpostu baino gehiago ditu eta, hortaz, langile gehien dituen enpresetako bat da Araban.

Kerejetak esan zuen Baskoniaren proiektua “nazioartean aitortu eta hainbat unibertsitatetan aztertzen den kirol-arloko kudeaketa-eredua” dela; ildo horretan, Deustuko Unibertsitatearen esanetan, “klubaren balio soziala balio ekonomikoa bera baino handiagoa eta baliotsuagoa da”.

“Horregatik, ez dugu gure taldea ulertzen kirol mailaz bakarrik arduratu eta inguruan duen gizartetik at dagoen klub baten gisan; kezkatu egiten gaituelako, gure gizartearekin konprometiturik gaude. 20.000 umek baino gehiagok parte hartzen dute gure programetan, eta gure gizarteari laguntzeaz harro gaude *Baskonia for Life* lako gizarte proiektuen bidez”, adierazi zuen Kerejetak.

“Horregatik guztiagatik, klub bat baino zerbait gehiago da Saski Baskonia. Kirolarekiko grina sustatzen duen hiriburu baten ikurra da taldea, bertako biztanleen harrotasuna eta nortasuna batzen ditu, eta Gasteizko eta Arabako gizarte kohesioa zein ekonomia sustatzeko tresna bikaina da”, azaldu zuen Baskoniako presidentek.

Ternua Group

Ondoren, JUAN LUIS LASAK, kirola eta moda jorratu eta ingurumenaren nahiz gizartearen aldeko engaiamendua ezaugarri duen TERNUA GROUP euskal enpresa-taldeko presidentek esan zuenez, “Gure balioak, sustraiek eta mundura zabaltzeko gogoia ditugu konpainiaren arrakastaren gakoak”.

Balioei dagokienez, Lasak zehaztu zuenez, “Ternua Groupen garrantzi handiagoa ematen diogu NOLA edo gauzak egiteko moduari ZERi baino. Moda iraunkor edo jasangarria modan jarri baino askoz lehenago, gure konpainiak, produktuak ekoizterako orduan, gauzak NOLA egin lehenetsita zeukan”.

Bigarrenik, sustraiek TERNUAko kideei nor diren gogorarazten dietela ziurtatu zuen Lasak: “Sustraiek nortasuna, balioak, eustarria edo munduan egoteko modu jakin bat ematen dizkigute. Azken batean, gauzak egiteko modu jakin bat. Guretzat, hemen egotea, gure jendearekin egon ere, lehentasunezkoa da”, azpimarratu zuen konpainiako presidentek.

Azkenik, mundura zabaltzeko lorkizunez ere hitz egin zuen Lasak: “gauza berrietan murgiltzen gara, desberdinaz txunditzen eta besteena miresten dugu, hona itzuli eta hemen jarraitu ahal izateko”.

Naizen

Ondoren, IAN VESGAK, NAROA SANDOVALEK eta IZAR GALÁNEK, gurasoekin eta adingabe transexualen familien NAIZEN elkarteko BEA SEVER bozeramailearekin batera, saria jaso zuten sexu-aniztasun inklusiboa lantzen eta adingabe transexualen errealitatea ikusgarri egiteko konpromisoa duten haur, gazte eta haien familia guztien izenean.

Hitzaldiaren hasieran, Severrek gogorarazi zuen NAIZEN elkartea orain urtebete sortu zela, nahiz eta “familien bidaia lehenago hasi zen, ‘Chrysallis Euskal Herria’ moduan, duela ia 5 urte”. Oztopo asko gainditu ostean, elkarteak “50 familia inguru batzen ditu gaur egun”, nabarmendu zuen bozeramaileak.

“Ez dago munduan seme-alaben zorientasunaren aldeko borrokan dihardutenen kemena geldi dezakeenik”, azpimarratu zuen Severrek. “Zoritxarrez, Ekai bidean geratu zitzaigun, baina gizartearen zati handi bati esker, erakunde, hedabide eta guzti, gure ahotsa bazter guztietara barreiatzeko eta gure seme-alaben errealitatea ezagutarazteko aukera izan dugu”.

Hala eta guztiz ere, BEA SEVERren iritziz, “oraindik ere ezjakintasuna da gure etsai nagusia. Ezjakintasuna da *bullying* kasuen atzean dagoena edo familia batzuek seme-alabei entzun barik jarraitzearen arrazoi nagusia”. Horra NAIZEN elkartea egiten ari den lan handia: hitzaldiak eta materialak eskaini, legeak erakundeekin negoziatu eta abar.



Andres Urrutia

Hasteko, ANDRES URRUTIA euskaltzainburu eta notarioak “itzal handiko foruzale” ADRIÁN CELAYA oroitu zuen: “maisu handia izan zen niretzat, herri honen alde gizarte zibiletik bertatik lan egiten irakatsi ziguna”. “Aurrerantzean etengo ez den kate baten kate-begiak gara; kate hori etorkizunera begira dago, egunez egun kate-maila berriak jarrita, eta euskara berebiziko osagaia izango da herri (kate) honen egituraketan”, adierazi zuen.

Ildo horretan, “Atzokoan finkatuz, gaur biharkoa bultzatu” Fundazioaren leloarekin bat eginez, Urrutiak esan zuenez, “aurretikoengandik jasotakoa eguneratu behar dugu, eta hurrengo belaunaldiei erakutsi”.

Halaber, erakundeei dei egin zien “egunean egon daitezen, tinko, ahots propioa dutela, eta herritarren beharrei erantzuten jakin dezaten”.

Azkenik, ANDRES URRUTIAK izeko bat (amaren ahizpa) ekarri zuen gogora, LUCRECIA BADIOLA, hain zuzen ere, Gernikako maistra hark berebiziko eragina izan baitzuen oso txikitatik euskaltzainburuaren ibilbide intelektualean; 1937an, diktadura frankistak espedientatu eta erbesteratu zuen euskara erabiltzeagatik. “Izekok erakutsi zizkidan herri honen kulturaren balioa eta muina”, adierazi zuen.

Gilles Simeoni

Korsikako Kontseilu Exekutiboko buru eta *Femu a Corsica* (Korsika egiten dugu) alderdiko GILLES SIMEONIK, “Korsikako borrokaren eta Euskal Herriaren borrokaren arteko lotura estuak” azpimarratu zituen, “bi-biek gizarte justuagoa eta solidarioagoa” lortu nahi dutela azpimarratuz, eta Sabino Arana Fundazioaren sariak jarri zituen horren adibide, Simeoniren arabera, “aniztasuna, elkartasuna, justizia eta abar saritzen baitituzte”.

XABIER MADARIAGA kazetariak ekitaldia aurkeztu zuen eta EUSKADI BRASS taldeak musikaz girotu.

12 BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK

- Ekainaren 19an, “Aterpe 1936” monumentuaren XIII. urteurrenean parte hartu genuen Artxandan, Eusko Lurra, Ramón Rubial, Manu Robles-Arangiz Institutua, Ikerketa Marxisten Fundazioa eta Anselmo Lorenzo Ikasketa Libertarioen Fundazioa, ELA-STV, UGT eta CNT sindikatuak eta EAJ-PNV, PSE-PSOE, EAE-ANV eta PCE-EPK fundazioekin batera.
- Irailaren 15ean, Telesforo Monzon eLab Euskal Herrigintza Laborategiarekin lankidetzan, “Euskal Herria-Basque Country-Nazioartean” tailerra antolatu genuen, Euskal Herriak munduan duen posizionamendu eta garatu beharreko kanpo-estrategia aztertzeko.
- Irailaren 20an, omenaldia egin zitzaion Zirardamendiko frontean (San Migel-Aiastia-Elgoibar) eroritako gudariei, hainbat erakunde, elkarte, kultura-erakunde eta alderdi politikorekin lankidetzan.
- Hainbat ikastetxerekin elkarlanean, hezkuntza-tailerrak sustatu dira, umeei eta gazteei historia eta bizi diren ingurunea hobeto ezagut dezaten.
- Beste ekitaldi batzuk.

13 ZABALKUNDEA / KOMUNIKAZIOA / INFORMATIKA

- Mezu@: harpidedun berriak erakartzea argitalpena sendotzeko.
- Euskadiko historiari lotutako politika, kultura, kirol, gizarte eta beste arlo batzuetako gertakizunen urtemugak eta Sabino Arana Fundazioaren jarduerak zabaltzea hainbat sare sozialetan (Facebook, Twiter eta Instagram).
- Mezu@ berripaper elektronikoa bidaltzea harpidedunei urtero antolatzen ditugun jardueren berri emateko. Erabiltzaileen kopuruari eustea.
- Jarduerak zuzenean eskaintzea, streaming bidez; bestetik, bideoak gordetzea gure webgunetik ikusi ahal izateko.
- Sabino Arana Fundazioaren webgunean ostatatuta dagoen datutegia aldizka eguneratzea, gure agiri-funtsetara batzen ditugun liburu, aldizkari, egunkari eta euskal historiari buruz argitaratu diren artikuluei buruzko argibidez hornituta.
- Webguneak eguneratzea: Fundazioarena, Agirre lehendakaria, Sabin Etxea eta SAG150 (Sabino Arana).
- Artikuluak idaztea DEIA egunkariarentzat, euskal historiari eta antropologiari lotutako askotariko gaien inguruan.
- Historia ikertu eta zabaltzeko lan eta argitalpenetan parte-hartzea.
- Mahai-inguruetan, liburuen aurkezpenetan, jardunaldietan, hitzaldietan, hedabideetako saioetan eta abarretan parte-hartzea.

14 JARDUEREN ONURADUNAK.

LORTUTAKO EMAITZEN EBALUAZIOA

Egindako jardueren onuradunak:

- Hainbat jakintza- zientzia-arlotako adituak.
- Agintariak eta politika-, ekonomia- eta gizarte-esparruetako ordezkariak: politikariak, katedradunak, legelariak...
- Iritzi-sortzaileak eta hedabideak.
- Irakasleak, ikertzaileak, unibertsitateko profesionalak.
- Umeak, familiak, praktikaldiko ikasleak eta bekadunak, erretiratuak.

Gure deialdien izaera irekia dela eta, euskal gizarte osoa dugu gure jardueren onuradun. Ildo horretan, gure zabalkunde-plana Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan eta Euskal Herriko gainerako herrialdeetan hedatzen da.

Lortutako emaitzen ebaluazioa:

Hasieran adierazi dugun bezala, COVID-19ak sorrarazitako egoerak eta krisiak baldintzatu dute gure 2020ko jardueren programaren garapena.

Hala ere, lineako ekimenak abian jarri eta, arruntan, aurrez aurrez baino egiten ez ditugun jarduera asko *streaming* bidez eman ditugunez, Fundazioaren jarduerak hein handi batean bete dira eta pertsona askorengana iritsi gara.

2020. urtean oroitu ditugu, besteak beste, EAJ-PNV alderdiaren sorreraren 125. urteurrena, Bigarren Mundu Gerraren amaieraren 75. urteurrena eta Schuman Adierazpenaren 70. urteurrena, Álava sarearen desagitearen 80. urteurrena eta Burgosko Prozesuaren 50. urteurrena. Urteurrenak esanguratsuak dira, bai Herri honen oroimen kolektiboa lantzeko, bai nazioarteko oihartzuna zabaltzeko. Jarduera horietan guztietan, Sabino Arana Fundazioaren Agiritegiak eta Museoak ere parte hartu dute, modu integratuan eta koordinatuan.

Era berean, Gogoeta eta Eztabaida Mintzagunearen bidez, eta Agiritegiak eta Museoak antolatutako jardueri esker, gaur egun kezkatzen gaituzten errealitateetara hurbiltzen jarraitu dugu (Europako eta Latinoamerikako eraldaketa politiko eta sozialak, AEBko hauteskundeak, garapenerako lankidetzak eta COVID-19, indarkeria matxista, zahartze aktiboa eta abar), Sabino Arana Fundazioaren ahalmen guztia balioan jartzeko. Eta Hermes-en lau zenbaki berri argitaratu ditugu, zehazki, 64, 65 eta 66 eta 67 zenbakiak. Eta Sabino Arana Sarien XXXI. edizioa egin dugu.

Bide horretan, Sabino Arana Fundazioak gizarte-oinarri anitzaren aintzatespena eta babesa dauka, gizarte- nahiz politika-arloan.

Sabino Arana Fundazioaren helburu nagusietako bat emakumeen parte-hartzea bultzatzea eta genero-berdintasuna sustatzea da fundazioak antolatzen dituen jarduera guztietan. Emakumeen eta gizonen arteko Berdintasun Legeari jarraiki, jarduerak garatzen dituenean, fundazioak beharrezko neurriak ahalbidetzen ditu berdintasun-printzipioa eraginkortasunez betetzeko eta printzipio hori funtsatzen duten balioak eta jardunbideak sustatzen ditu. Eta hori betetzeko ahaleginak egiten ditugu barruko erabaki-organoetan –Patronatua eta abar–, gonbidatuetan eta parte-hartzaileetan.

Beste alde batetik, esan beharra dago Sabino Arana Fundazioko kideok neurriak hartzen ditugula euskararen erabileraren garapena eta normalizazioa ziurtatzeko helburuz, alde batetik, gure herriaren kultur ondarearen funtsezko elementua delako.

Emandako kopuru eta datuak kontuan hartuta, aurreikusitako helburuak behar bezala bete ditugulakoan gaude.

SABINO ARANA FUNDAZIOA 2020 EGINDAKO JARDUERAK

Urtarrilak 26, igandea:	Sabino Arana Sarien XXXI. edizioa, Arriagan.
Urtarrilak 31, igandea:	“XII. BILBOKO ELKARRIZKETAK: Europa-Latinoamerika. Mobilizazioak eta matxinadak krisi politiko eta sozialen aro globalean”.
Martxoak 5, osteguna:	Genealogiari buruzko tailerra, Bilboko Zazpikaleetako Sasoiko BBK-k sustatuta eta Dokutaldek antolatuta.
Martxoak 14, larunbata:	Castelaori omenaldia, Txurdinagako Europa parkean. Euskadiko Galiziako Etxeen Irmandadearekin elkarlanean (bertan behera) .
Uztailak 21, asteartea:	Seminario “Etorkizuneko euskal gizartea: euskara erabiltzeko eremu berriak”.
Irailak 30, asteazkena:	Seminario: “Gerraren hondakinetatik Europaren etorkizunera. Schuman Adierazpenaren 70. urteurrena”. PDE-EDPrekin lankidetzan.
Urriak 15, osteguna:	“Álava sarea: genero-historia baten paradigma” hitzaldia, Historiako doktore eta UPV/EHUko irakasle ohi Josu CHUECAREN eskutik.
Urriak 20, asteartea:	“ <i>Euskal abesbatzen mugimendua: memoria eta erronkak</i> ” mintegia, Bilbao 700 Fundazioarekin lankidetzan.
Urriak 20, asteartea:	“Torture 26” film laburraren aurkezpena, LORENT SALEH ekintzaile venezuelarraren eskutik (geroratu) .
Urriak 30, ostirala:	“Museoko materialen bizitza. Prebentziozko kontserbazioa” tailerra.
Azaroak 11, asteazkena:	“Garapenerako lankidetzat eta COVID-19” mintegia.
Azaroak 12, osteguna:	Bideo bidezko hitzaldia XABIER IRUJOREKIN. AEBetako 2020ko hauteskundeak.
Azaroak 13, ostirala:	“Museoko materialen bizitza. Ehunen kontserbazioa” tailerra.
Azaroak 19, osteguna:	“Zahartzaro aktiboa” hitzaldi-zikloa. JAVIER YANGUASEN eskutik.
Azaroak 20, ostirala:	Euskaraldiaren abioa. Sabino Arana Fundazioa azaroaren 26an agertu zen sareetan.
Abenduak 2, asteazkena:	“Zahartzaro aktiboa” hitzaldi-zikloa. IÑAKI ARTAZAREN eskutik.
Abenduak 9, asteazkena:	“Indarkeria matxista COVID-19aren garaian”, NORMA VÁZQUEZ psikologo feministaren eskutik.
Abenduak 10, osteguna:	“Burgosko epaiketa, Erregimenaren «barne etsaia» delakoaren aldaketaren faktorea” hitzaldia, FRANCISCO LETAMENDIAREN eskutik.

Abenduak 15, asteartea: “Immigrazioa eta Euskera (II)” mintegia.

Abenduak 17, osteguna: “Zahartzaro aktiboa” hitzaldi-zikloa. Lourdes
Zurbanobeaskoetxearen eskutik.

Abenduak 29, asteartea: “Ekonomia Ituna” hitzaldia.